



ARGIA

HERIOTZAREN NEGOZIOA **NORK BULTZATZEN DU EUSKAL ARMAGINTZA?**



LARRUN: EUSKARA NAFARROAN


'HANDIA' FILMAREN ZUZENDARIEKIN ERREALITEAZ, MITOAZ ETA FIKZIOAZ
LA NAVAL IXTEKO ARRISKUAK DARDARKA JARRI DU EZKERRALDEA



Jakoba Errekondoren liburu berria
Antton Olariagaren ilustrazioekin

LANDAREAK LANTZEN

2018ko ZURE LANETARAKO AGENDA



Hemen duzu urte osoan
egin beharreko lanen
egutegia, **saso**i bakoitzari,
hilabete bakoitzari eta
ilargialdiari lotuta:
baratzean, fruitu arboletan,
lorategietan eta basoan.

Lan hauek noiz eta nola egin
ditugun jasotzeko aukera
ematen du agenda honek.

**LIBURUA
ESKURATZEKO***

943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda



*Jakoba Errekondok sinatzeko aukera

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Fauna publikoa
- 10 Net Hurbil: Amiantoaren aurkako taldeetan infiltratua

IRITZIAK

- 17 Aiala Elorrieta
- 18 Fermin Erbiti Zabalza
- 19 Eneko Olasagasti Edu Zelaia
- 20 Katixa Dolhare-Zaldunbide



Jon Garaño eta Aitor Arregi, 'Handia' filmaren zuzendariekin hitz egin dugu.

(ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: ERIKA LUST
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Juan Ignazio Zulaika, puntista ohia: "Gure garaian, erretiratu arte seguru zen pilotaria" / Miel A. Elustondo
- 22 | Euskal Herriko industria militarra: Etxean uso, kanpoan kondor / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 28 | La Naval: Pribatizazioak ontziola eskoratu du azkenean / Urko Apaolaza Avila
- 31 | "Europak digu musulmanoi gerra egiten" / Ibai Trebiño
- 34 | Arabako Alea eta Hala Bedi: "Lehen patatero deitzen ziguten mespretxuz, orain harro esaten dugu" / Axier Lopez
- 42 | 'Handia' filmaz: "Gizon altu sinesgarri bat nahi genuen, ez munstro bat" / Mikel Garcia Idiakez
- 46 | Remigio Mendiburu: Txango historiko bat / Aritz Galarraga

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BEREAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Xalba Ramirez.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industriadela, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurd, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoak eginez, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).



Gipuzkoako Foru Aldundia



DEMO

BOZKATU ERABAKITZEKO / VOTA

LORE
ESKI



DEMOKRA

CATALUNYA, ESTEM AMB

PANORAMA

Estem amb vosaltres

Salbuespen egoera disimulatua aplikatu dute Katalunian eta emango dizkieten kolpeen graduazioa igotzen joango da. Testuinguru honetan, elkartasun argazki indartsua helarazi diete milaka lagunek Bilboko kaleetatik Kataluniako adiskideei, Gure Esku Dagok deituta. Sorpresa izan da askorentzat, euskal instituzioetako arduradun nagusi Barkos mutu eta Urkullu galdeketa zilegitasuna kentzen ibili osten aurreko egunetan. Etxera begira, Euskal Herriak ere bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea duela aldarrikatu du manifestazioak. Gauzek baina, dextente aldatu beharko dute eta adi ibili beharko dute Gure Esku Dagok eta independentista guztiek, kataluniarrak joan edo ez, euskal dikotomia berria ez dadin bihurtu PPren autonomia murrizketa proposamena vs. Urkulluren estatus berria, eta azken horri buruzko galdeketa izatea euskal herritarren erabakitzeko eskubidea.

Argazkia: Dani Blanco - Testua: Lander Arbelaitz



t “Erreferendum katalana babestu duten euskal herritar guztiak atxilotu behar dituzue? Eskuetatik joan zaizue, hau geldiezina da”
@Coordinadora255

t “[Hemengo politikariekiko] ezberdintasuna da Kataluniako herriak argi duela ez dagoela Estatuarekin ezer paktatzerik”
@IgorMeltxor

t “Independentismo katalanaren garaipen handia da eskubide nazionalen aldeko borroka bihurtu izana eskubide sozialen aldeko borroka”
@jonathanmartinz

t “Bi tertulia gehiago entzuten badituzte independentista katalan egingo dut nire burua, Sevillan bizi naizen arren. A zer manipulazio eta gorroto maila”
@@RaulSolisEU



AHT GELDITU

AHT proiektua Madrilen, aukera berri bat Nafarroan

Xabier Letona
@xletona

Espainiako Gobernuak Sustapen Ministerioak bere gain hartu du Nafarroako Prestakuntza Handiko Trena (PHT) –lehengo AHT– eta bertan behera geratu da Nafar Gobernuarekin zuen ituna. Aitzakia izan da Espainiako Gobernuak maiatzean eskaini ziola Barkosen Gobernuari itun berri bat egiteko aukera eta irailaren 10erako erantzun behar ziola honek. Iruñeak ez du erantzun eta Madrilek ituna apurtu du. Orain berak bakarrik erabakiko du dena. Gutxi gorabehera lehen bezala.

Aldaketaren Gobernuak denbora irabazi du eta atzeratu egin da lau indarren arteko talka: EH Bilduk, Ahal Duguk eta Izquierda-Ezkerrak iragarria zuten tren lasterrarentzat dirurik egonez gero 2018ko aurrekontuetan, hauek ez onartzeko arrisku handia zegoela.

Krisi ekonomikoak eta Nafar Gobernuak aukera berria eman diote proiektuari: azter dezala sakon gizarteak zer interesatzen zaion eta zer egin nahi duen. Zeren eta orain arteko proiektua, 2016ko Kontuen Ganberaren azterketak erakusten duen moduan: bat, “finantza publikoak ongialdi ekonomikoan zeudenean planteatu eta diseinatu ziren”, hau da, beste garai batekoa da; eta bi, proiektuaren “arau-esparru indarduna desfasatuta dago epeei eta kostuei dagokionez”, hau da, orain paperetan dagoena kea da.

Bada ordua proiektu berri bati eskua sartzeko, herritarren zerbitzura egongo dena, lurraldea batu eta ingurumena zainduko duena... Ezaugarriok dituen proiektu serioa aurkeztu du Sustrai Erakuntza elkarteak. 2.000 milioi euroko kostua luke –egungoaren erdia– eta ez da haien idealena, baina “trantsizio eredu gisa” planteatzen dute.

“Patronalek auzia bizi dute emakume-gizon erasoa bailitzan”

BIZKAIKO ZAHAR EGOITZETAKO LANGILEAK

Irailaren 20an Gasteizen egingo den emakumez osatutako mobilizaziora deitzeko, bideoa kaleratu du ELAk. Langileak mintzo dira: “Patronalek auzia bizi dute emakume-gizon erasoa bailitzan, ez dute jasaten emakumeak izatea borroka egin eta irabazi dezakegunak. Esaten zaigu soldata txikia dugula, gure senarren osagarri garelako. ‘Total, lau ipurdi garbitu besterik ez duzue egiten’ entzun behar izan dugu. Urtean gai pertsonaletarako lau ordu eskatu eta esan ziguten, ‘zertarako, seme-alabak eskolara eramateko?’. Aski da!” **2017-09-15**



FAUNA PUBLIKOA

**"Guk ere erraztuko genuke
herritarren parte-hartzea
autodeterminazio
ariketa batean"**

EH Bilduko alkateak (Naiz.eus)

Baldintza eta subjuntibo



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria


AliExpress-en Kataluniako independentismoa erosi zenuen; etxera iritsi eta kaxatik atera duzunean, ordea, murratza okertu zaizu: ez, ez zen hau. Zeren hau da gure gaur egungo independentismoa, produktu bat Kataluniakoaren antza izan dezakeena ilusio pixka bat duenarentzat, baina emozioak beste tenperatura batzuetan dauzkana sentiarazten duena Michael Douglas *Falling Down* filmean bezala, sartzen denean hanburgeserian eta bertako langileei edukazioz eskatzen dienean –bueno, edukazioz: KG9 subfusil bat eskuan edukitzeak uzten duen neurrian–, konparatze-ko nolako hanburgesak iragartzen dituzten afixetan eta nolakoak zerbitzatzen dituzten gero. Eta klaro, konparazioa kabroia da.

Bueno, ba EH Bilduko alkateen Big Mac honekin igual: udaletxeko terrazan bazkaltzen duzunean piperpotoko saltza derrigorrezkoa izateak mokadua garrazten du.

Nahi bai gure independentismoa ikusi hangoa bezala gihar guztiak punpaka, irribarre demokratikoa galdu gabe desafiatzen Espainiako Estatuaren demofobia, nazioarteko begiradak erakartzen, bide batez munduari erakutsiz nola funtzionatzen duten egunerokoan normal-normal hizkuntza gutxiagotu batean. Baina ez gaude horretan. Eta ez gaudenez horretan, halako adierazpenek kartoi-harrizkoak dirudite elkartasunetik haragoko terrenoetan sartzen hasten direnean, hutsik jarraitzen dutelako "genuke" bakoitzaren aurreko "bagenu", "balitz" eta "bagina" osagaiek.

Bada tarte baldintzatik subjuntibora –"guk ere erraztu dezagun herritarren parte-hartzea autodeterminazio ariketa batean"–, zer esanik ez indikatibora –"guk ere erraztu dugu..." etc.– eta hemengo dantza, momentu honetan, mamboa baino gehiago da *Despacito*. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



ADUR

ANALISIA



LOMCEren aurkako borroka lortu zuen indarrak batzea; lortuko al du murrizketen aurkako borroka?

Fase berria hezkuntza publikoaren borrokan



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: ECUADOR ETXEA

Urteotan LOMCEk eragindako tsunamiak itzalpean zuen arren, hezkuntza publikoak beste borroka eremu inportante bat duela gogoratu digute EAEko sindikatuek: murrizketak jarri dituzte lehen planoan eta bero hasi dute ikasturtea. Itxialdiak, elkarretaratzeak, solasaldi informatiboak, salaketa egunak, borroka asteak, greba orokorra eta sektoreka... iragarri dituzte udazkenerako, Jaurilaritza negoziatzera presionatu asmoz. Batzuek eta besteek darabilten datu saltsan, Espainiako Estatuako erkidegoekin alderatuta EAEn hezkuntzara bideratzen den diru kopurua gehiago dela nabarmendu izan du Jaurilaritzak; sindikatuek ordea nahiago dute Europarekin konparatu eta salatzen dute Europar Batasuneko batez bestekora ez dela iristen inbertsioa. Errealitatea da 2009tik urtez urte jaitsi dela hezkuntzara bideraturiko dirua, bai kopuru absolututan bai portzentajetan (beste partida batzuek, AHTrazuzendutakoak kasu, gora egin dute), gela

bakoitzeko ikasle kopuruak gora egin du, eta behin-behineko irakasleak %40 dira oraindik. Horiek dira sindikatuek borrokatu nahi dituzten puntuetako batzuk.

Horretarako abiatu duten konfrontazio estrategiak emaitzaren bat lortzeko eta benetan presioa egiteko, erantzun irmo eta zabala beharko lukete, oraingoz Jaurilaritzari entzundakoak beste muturrean kokatzen baitira: mobilizazioak ez daudela "inolaz ere" justifikatuta diote, ez dela unea, eta, berriz ere Espainiako Estatuarekin konparatuta, EAEko irakasle publikoek lan-baldintzarik onenak dituztela, pribilegiatuak direla iradokiz. Baina datuak hor daude eta sindikatuek argi dute ez dela irakasleen kontua bakarrik, hezkuntza publikoaren kalitatea eta ikasleen euren heziketa dagoela joan, gizarte osoari dagokion afera dela alegia. LOMCEren aurkako borroka lortu zuen herritarrek hori barneratzea eta indarrak batzea; lortuko al du murrizketen aurkako borroka?

EKONOMIAREN TALAIAN

"Munduko alferrok, batu zaitezte"



Juan Mari Arregi

Milaka langile, frantziar zein euskaldun, kalean erakusten ari dira greba eta manifestazioekin Macronek Frantziako Estatu osoan inposatu nahi duen lan erreformaren kontra daudela. Rajoyren Gobernuak ezarri zuen erreformaren antzekoa da: kaleratuarentzako indennizazioak merkatzea, multinazionalentzako abantaila gehiago langilea kalera botatzeko, negoziazio kolektiborako mugak sindikatuari... Horiek dira hartu nahi dituen neurrietako batzuk, kapitalaren zerbitzura.

Frantziako presidenteak, bere marketin pertsonalerako dirutza gastatzen duen bitartean, sindikatuen artean dagoen banaketa aprobetxatu du mobilizazioen aurretik esateko ez duela "alferren, zinikoen eta muturrean dauden aurrean etsiko". Bada, "alfer" horiek, grebalariek, Macroni erantzun diote oihukatuz: "Munduko alferrok, batu zaitezte". Deialdi horri toki guztietako "alferrek" egin beharko liokete kasu, orain Macronen lan erreformak ordezkatzeko duen ofentsiba kapitalistari aurre egiteko. "Macron eta bere munduak legalki hiltzen gaitu" izan da manifestatzaileen beste garrasietako bat.

Macronen erreformak euskal herritarrek ere hiltzen ditu "legalki", Hego Euskal Herrian Rajoyrenak egin bezala. Beste irakasgai bat atara dezakegu beraz: Madril eta Parisen erreforma laboralak sufritu ditugun euskaldunok gure herriaren subiranotasunaren aldeko fronte sozial bat ireki beharko genuke. Horrela baino ez dugu lortuko aberastasunaren banaketa justuago batentzako tresnak izatea eta eskubide sozial eta laboralak bermatzea. Rajoy bezala, Macronek bere erreforma inposatuko digu, baina alferrok ez gara haren aurrean belaukatuko.



BIZI!

Ama Lurra ez hunki

SEICHEBRIÈRES. Lapurdiko hamaika herri hartuko lituzkeen urre meatzea egiteko xedea du Frantziako Sudmine konpainiak. Proiektua salatzeke, Bizi!-ko 17 kidek ekintza egin dute garabiekin, Sudmine enpresaren presidentearen etxe aurrean. Bestalde, 2.000 bat lagun bildu ziren irailaren 16an Baionan, egitasmoaren kontra. Ipar Euskal Herriko hautetsi ugari bertan ikusteak baieztatu du badagoela meategia gelditzeko aukera.

Laguntza sozialen kontrola handitzeko, 600.000 euro

Xalba Ramirez

@xalbaram

Unai Rementeria Bizkaiko ahaldun nagusiak aurkeztu du "laguntzak bai kontrola ere bai" kanpaina, laguntza sozialetan jarraipen estuagoa egiteko eta baldintzak berrikusteko.

Plana

600.000 euroko aurrekontua erabiliko da "16.000 prestazio eta 350 zentro baino gehiagotan zerbitzu horiek eta euren helburuak betetzen direla egiaztatzeke". 2017-2019 urteetarako Plan Orokorren barruan egingo dira berrikuspenak.

Rementeriararen hitzak

Rementeriararen arabera "Bizkaia gizarte solidarioa da, baina aldi berean, erakundeek gizarte laguntzen kontrol handiagoa garatzea nahi du". Dagoen iruzurraren gaineko daturik eman gabe egin du kanpainaren aurkezpena ahaldun nagusiak.

Kritikak

Elkarte eta alderdi ugariaren kritika jaso du ekimenak, fokua berriz ere diru-laguntzetan jartzeagatik, datuek dioten arren iruzurgleak gutxiengoa direla. Jaurlaritzak ere, helburu berarekin, Iruzuurraren Aurkako Taldea sortu zuen martxoan.

AHT



5,8

milioi euroko ustezko iruzurra atzeman zuen Arabako fiskaltzak AHTko obretan. Kasua Gipuzkoako fiskaltzaren esku uztean, honek artxibatu egin zuen.

%26ko

gain-kostua izan zuten Beasaingo obrek (tarte horretakoak dira irregulartasunak): 47,3 milioitan esleiturikoa 55,2 milioi kostako da.



ETA

Barne-eztabaida abian jarri du ETAk: atzera begira jarriko da, aurrera begirako "erabakitzeke eskubidea egikaritzea ekarriko duen indar metaketa errazteko". Eztabaida oztopatzen saiatuko direla adierazi dute.



ERNALKUNTZA

2018tik aurrera, lagundutako ernalkuntzarako eskubidea aitortuko die Frantziako Estatuak bikotekiderik gabeko emakumei eta lesbiane. Marlène Schiappa Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako estatu idazkariak jakinarazi du (argazkian).



BERTSOLARI LEHIA

Irailaren 23an hasiko da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia, Baigorriin. Finala abenduaren 17an jokatu da Barakaldoko BECen. Azpimarratu dutenez, "lehen aldiz aldi berean euskararen zazpi lurraldeetan" egingo da txapelketa.

Amiantoaren kontrako militanteok: industriaren infiltratu bat daukazue



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Bere jokabide atsegin eta jatorragatik lortuko zuen edo eta kanpainetan erakusten zuen kemenagatik, baina amiantoaren aurkako mundu mailako liderrek lau urtez konfiantza eduki zuten Robert Moore ingelesarengan. Ekintzaile kualifikatuaren artean azpilanean ari zen mundua oraindik material kutsakorrez betetzen duen industriarentzako. Asbestoa hilgarria dela jakin eta mende bete geroago, herrialde gehienetan haren ekoizpena eta salmenta ez etetea lortu dute.

1998an sinatu zen Rotterdango Ituna, gai kimiko arriskutsuen nazioarteko salerosketetan erosleak arriskuez informatzea derrigorrezko egiten duena. Nazio Batuen Erakundearen babesean Itunak urtero burutzen du biltzarra; estatuetako agintariekin batera elkartzen dira bertan, batetik industriaren ordezkariak, eta bestetik gai kutsakorrek arautzeaz gain debekatzea sustatzen duten erakundeak.

Hasieratik da amiantoaren debekua Rotterdango Itunaren eztabaidagai gatazkatsuenetakoa, urteroko biltzarrean hartze du parte Amiantoaren Gaixotasunaz Ohartarazteko Erakundeak (ADAO ingelesezko sigletan), militanteen artean kutsagaiaren biktimak ere biltzen dituen. 2017ko hitzaldietan ADAOren ordezkartzan falta zen aurpegi eza-gun bat, Robert Moore. Hilabete batzuk lehenago jakin zen ustez kutsagaiaren kontrako gudari sutua zena benetan mahaiaren beste aldekoen espioia zela, asbestoaren patronalarena.

ADAOren fundatzaileetakoa den Linda Reinsteinek 2006an senarra galdu zuen lanpostuak eragindako mesotelioma batek eramanda, alegia, amianto zuntzek sortutako minbiziak. "Gure elkarteak –esan dio *Montreal Gazette* egunkariari– milaka dolar xahutu ditu alferrik Rob Moore konbidatu eta haren gastuak pagatzeko. Diru galera baino gogorragoa da, ordea, traizionatuak izatearen mina. Latza da, ezin barkatuzkoa, horrelako bat asbestosiaren biktimen

biltzar batean gertatzen ikustea. Ez al dugu nahikoa sufritu?"

Zinegile akreditazio legezkia erabiliz, estreina Amiantoaren Debekurako Nazioarteko Idazkaritzara (IBAS ingelesezko sigletan) hurbildu zen Moore Londresen. Amiantoaren kontrako ekintzaile nekaezin bezala agertuko zen kide ezagunenen artean. Gaiak prestatzen ari omen zen dokumentalaren aitzakian, mugimenduak mundu osoan dauzkan taldeen bileretan infiltratu zen, liderren joan-etorri eta planez informazio zehatzak jaso, biltzar publikoetan parte hartu, berak espatzen zituen erakundeen ordezkari izatera iritsiz.

AEBetan ari den ADAO elkartearen sartu zuen muturra eta baita Kanadako militanteen artean ere. Kathleen Ruff kanadar beteranoak kazetariari kontatu dio nola aurkitu zuen Moore Thailandiako biltzar batean. Ruffek berak lagundu zion Rotterdango Itunaren 2015eko ediziorako kredentzialak lortzen. Gogoan dauka galdera asko egiten zituela mugimenduaren finantziazio iturriez eta nola eskatu zion bitartekari egitea –eta militante zaildu zuhurrak ukatu– Kanadako gobernuaren barruan amiantoaren aurkakoekin harremana zuten funtzionarioekiko.

Kontua da 2016ko irailean Global Witness gobernu kanpoko erakundeak Londresen auzitara eramane zuela Robert Moore amiantoaren kontrako mugimenduak espatzeagatik. Antza denez, Moorek berak jo zuen munduko ustel-



keria kasuak ikertzen dituen Global Witnessera aitormen harrigarriak eginez: infiltratua zela, K2 Intelligence segurtasun enpresak pagatzen ziola, enkargua Kazakhstanen krisotilo –amianto zurimeategia daukan Nurlan Omarov egin zuela, gaiak nahigabe gero eta handiagoa sortzen ziola...

Moorek Global Witnesseko buruei sekretua isilpean gordetzea eskatu zien, beldur zelako kasua jendearen aurrean azaltzeak kaltetuko zuela BBC kate publikoaren buruzagitzan dagoen bere arreba Charlotteren karrera profesionala. Ez zioten eskaria onartu eta gaia amiantoaren aurkako mugimenduari jakinarazi zioten, epailearen eskuetan uzteaz gain. Moorek kideei ostutako 300.000 dokumentu entregatu behar izan zizkion epaileari.

"Oraingo amiantoa ez da lehengoa"

Asbestoaren patronalaren espioiak bazituen motiboak Kanadako mugimenduetan muturra sartzeko. Munduan zientia erdi herrialdek daukate debekatuta amiantoaren komertzializazioa, tartean Europa osoak, baina gainerakoetan libre saltzen da, tartean AEBetan eta Kanadan. Industria urduri zebilen Justin Trudeau lehen ministroak urte hasieran iragarria zuenetik Kanadan ere debekua ezartzeko erabakia.

Munduko Osasun Erakundearen kalkuluetan urtean amiantoak planetan 100.000 heriotza eragiten duen arren, ez da lortzen haren erabilera mozterik.

Brother of BBC boss 'was paid to spy on asbestos campaign'



Corporate spy Robert Moore, who for four years posed as a journalist to infiltrate the global anti-asbestos movement. He's pictured at an anti-asbestos conference run by the Asbestos Diseases Awareness Coalition, headed by Linda Reinstein. (IMAGE: T. RICH)

"BBCko buru baten anaiak dirua kobratu zuen 'amiantoaren kontrako kanpainetan espiatzeko', 'The Times' egunkariaren lehen orrian 2016ko udazkenean, infiltratuaren argazki eta guzti. Ustelkeria borrokatzen duen Global Witness elkarteak auzitara eramanda, Moorek aitortua du 400.000 eurotik gora pagatu zizkiola K2 Intelligence segurtasun konpainiak amiantoaren patronalaren buruetako baten enkarguz. Urtean 1.800 milioi tona asbesto merkaturatzen duen industriak badu hori eta askoz gehiagorako indarra.

Rotterdamgo Itunaren 2017ko edizioan biktimen elkarteak saiatu dira debekua lortzen, baina porrot egin dute berriro. India, Errusia, Kazakhstan eta Zimbabwek kontra bozkaturik, pikutara joan da proposamena, Itunaren arauen arabera herrialde guztien unanimitatea behar baitu erabakiak.

Industriak lobbygintza eraginkorra egiten du eskueran dauzkan bitarteko guztiekin beraiek beti krisotiloa deitzen dutena saltzen jarraitzeko. Amianto edo asbesto zuria besterik ez da krisotiloa baina industriaiek jendeari sinetsarazi nahi diote arriskurik gabe erabil daitekeela. Alde batetik, asbestoaren arriskugarritasuna demostratu duten ikerketen inguruan zalantza bat sortzen ahalegintzen dira. Tabakoaren, petrolioaren edo ikatzaren industrietan darabilten taktika berean, kontua ez da zientzia gezurta-

tzea, plazaratutako ikerketen balioaz zalantza zabaltzea baizik.

Kathleen Ruff ekintzaile kanadarrak ongi ezagutzen ditu metodook: "Zientzia usteltzen dute. Industriak zientziari batzuei pagatzen die ikerlan ez objektiboak argitaratu ditzaten. Kanadan urte luzez zabaldu dituzte txosten zientifiko faltsuak, herrialdearen osasun politika usteldu dutenak".

Amiantoaren kontrako borrokan ekintzaileek egiten dute topo industria- len diruz sortutako Gobernu Kanpoko Erakundeekin ere, eztabaidak eta ekintzak katramilatzen ahalegintzen direnekin. Beste tresna klasiko bat da Robert Moore bezalako espioiak mugimenduetan infiltratzea, lobbyek orain K2 Intelligence bezalako segurtasun enpresen bitartekaritzarekin disimulu handiagoz lortzen dutena.

Mooreri K2 Intelligencek emandako enkarguaren pagatzailea Nurman Omarov kazakhandarra, Krisotiloaren Nazioarteko Elkartearen (ICA ingelesezko sigletan) zuzendaritzakoa da. Izen neutro horrek estaltzen du amiantoaren munduko patronala. Errusia, Txina eta Brasilekin batera Kazakhstan da munduko ekoizle nagusia, eta debekuaren kontrako gurutzadan bidaide dituzte AEBak, Kanada eta beste herrialde askotako industrialak ere.

Zientziak eta esperientziak amiantoaren hilkortasunaz erakutsi digutena gezurtatzen diru asko darabilte, adibidez *No Chrysotile Ban* (Krisotiloa Ez Debekatu) bezalako webguneen bitartez. Errusian eta beste askotan amiantoaren arriskuaz kasik inork ez hitz egitea lortu dute. Bitartean, mesoteliomak ugarituz doaz munduan. ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Juan Ignazio Zulaika, puntista ohia

«Gure garaian, erretiratu arte seguru zen pilotaria»

Behin batean izan ziren pilotari batzuk, zesta-punta nahiz raketa jokalaria, Amerika amets izan zutenak. Izan ziren ametsa gauzatu zutenak, Juan Ignazio Zulaika, kasu, ametsaren gozotik bezainbat amesgaiztoaren ozpinetik dastatu zuenak AEBetan. Txik-txak blogean kontatzen du...



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Zesta jokariari ez ziren bakarrik Gernikan eta Markinan.

Ezta pentsatu ere. Gipuzkoan zesta-punta jokatzeko zaletasun handia zegoen. Villabona inguruan, Oarsoaldean... Bizkaian Markina izan zen foku handiena, handik irten ziren pilotari gehienak, baina Tolosako eskolatik ere ehunka irten ginen.

Tolosara bizitzera joan zineten 6 urte zenuela.

Pilotan ari nintzen zortzi urte nituela. Aita pilotazalea, eta frontoitik gertu bizi ginen. Anaia zaharra eta biok gainerako pilotariek nola jokatzeko zuten begira egoten ginen. Halako batean, aitak zesta bana ekarri zigun, eta Anoetan (Tolosaldean), hala-moduzko frontoi irekian hasi ginen saioak egiten. Gero, aitak Rafael Elizondorekin hitz egin zuen, urte askotan toki askotan pilotan ibilitakoa -Kuban, Manilan, Mexikon...-, eta erretiratu zenean Tolosako pilota eskolako maisua.

Eta Elizondok eskolarako hartu zintuzten. Ez zituen denak hartuko, hala ere.

Denak hartu, ez. Gaztetxoak nahi zituen hark. 17-18 urteko mutil sendo eta indar handikoak nekez hartzen zituen.

Haiei teknika irakasteko modurik ez, nonbait. Kankailu haiek aitarekin joaten zitzaizkionean, Rafaelek [Elizondo] proba egiten zien, traketsak zirela ikusten zuen, eta dena delako mutilaren aitari esaten zion berandu xamar zela haiei ezer erakusteko, eta han itzultzen ziren burumakur aita-semeak etxera.

Ez zen zuen kasua izan.

Ez, gu oso gazte hasi ginen, indarrik ez geneukala. Ikasteko proposak. Eta ikasi genuen, eta pilotari izan ginen. Nik, esaterako, 14 urterekin debutatu nuen, Zaragozan (Espainia). Hori zen debuta egiteko adina. Baziren 13 urterekin debuta egindakoak ere, artean galtza motzetan ibiltzen ziren mutikoak. Eta Kubara nahiz Madrilera joaten ziren. Guretzat ere izugarria izan zen etxetik irteea. Oso mundu txikia zen gurea, eskola eta familia, ez zen besterik. Frankismoa zen, egoerari buruzko informazioarik ez, eta bestalde, erlijioak oso baldintzatu bizi ginen, lotsa eta erruduntasuna barruraino sartuak: sexu informazioarik ere batere ez, neskekin harremanik ez, eskolan mutilak mutilekin ginen, neskek neskekin... Horrek pisu handia izan zuen gure heziketan.

Erbestean bestela zen.

Orduan, komeriak. Batetik, sekulako ilusio eta ametsa genituen Amerikara-eta joateko. Bestetik, berriz, lotsa eta beldur handia genuen, guztiz lotuta bizi ginen, zentzu guztietan.

Juan Ignazio Zulaika Barreras

Andoain, 1956

Tolosan hazi zen, baina 14 urte besterik ez. Pilotari ari zen Zaragozan 15 urte zituenean. Harrezkero, Milan, Bartzelona eta Floridako frontoiak zapaldu zituen, Amerikako ametsa betetz. Pilotariek 1988an AEBetan hasi zuten grebak zapuztu zuen ametsa. Urtea eta zenbait hilabete borrokan eman eta gero, Euskal Herrira itzuli zen 1989an, ezkondua eta haurra zutela ordurako, bestelako bizimodu bat amets, bestelako lanbide bat. Garraio enpresa batean hasi zen lanean eta, bestalde, Amerikan pilotari da haurra zela Euskal Herrira etorritako hura.



Amerika amets zuek.

Tolosan ikasten ari ginela Tximela eta fama handiko pilotariak etortzen ziren, eta gu haiei begira egoten ginen, gaur egun mutikoek futbolarietara begiratzen dieten miresmen berarekin. "Hau Ameriketatik etorri duk. Hura Filipinetatik. Beste hura Madriletik. Halako, Mexikotik". Ez genuen erbesterik ezagutzen, baina gure buruan, irudimena libre. Gogoratzen naiz Miamin liburuxka moduko bat publikatzen zutela, pilotarien fotografiak, kinielak... guretzat hura ikaragarria zen, entenditzen ez bagenuen ere: ingelesezko izenak guretzat arraroak, pilotari kubatarrek euskaldunekin batera pilotan...

Mundu horrekin bat egin zenuen zuk ere halako batean.

Bai. Garai hartan, pilotariak lau-bost hilabete jokatzeko zuten Amerikan. Gero, Euskal Herrira etorri eta Espainian jokatzeko zuten Zaragozan, Madrilan, Mallorcan... Gu baino zaharragoak ziren haiek, etortzen ziren, joaten ziren, eta gu, berriz, Amerikara joateko gure txanda noiz ailegatuko zain bizi ginen. Halako batean, Miamiko frontoiko enpresaburua etortzeko zela esan ziguten, eta jakin nuen ni ikustera etorria zela; besteak beste, ni. Jokatu nuen, baina guztiz urduri. Gero, intendenteak hots egin zidan bulegora, eta han, Amerikako enpresaburuak esan zidan, erdi ingelesez erdi gaztelaniaz, gaztetxoa nintzela, itxaron egin behar nuela heldu arte, tokia izango nuela. Nik, berriz, nire ume fantasian uste nuen egun hartan bertan egingo zidala kontratua, eta arraioa!, zapuztuta geratu nintzen. Berehalaxe, berriz, Milanera joateko aukera izan nuen, zenbait beteranorekin: "Gaztetxoa duk baina badik heldutasunik". Aitari baime-na eskatu behar izan nion. Hark baietz, eta Milanera. Hantxe bete nituen hamabost urte. Jauzi ikaragarria izan zen. Zaragoza herri handi bat besterik ez zen. Milan, aldiz, hiria, zeharo ezberdina. Hango giroa, eta hizkuntza, eta kultura, eta zinema, eta politika giroa... Oso gustura igaro nuen, nahiz eta lotsa eta erruduntasun sentipen hark erabat baldintzatzen ninduen.

Bakarrik zinen?

Nire moduko mutiko gazteekin. Beasaindar batekin joan nintzen. Han, berriz, bizkaitar batekin elkartu ginen



etxebizitzan, eta ikasleen modura bizi ginen. Etxetik frontoira joan-etorrian. Frontoiko ikusleak gaiztoak ziren, bi-raoka ez baina zalaparta handia ateratzen zuten, eta ikaragarri sartzen ziren pilotariekin. Han ez zuten barkatzen, 14 urte izanagatik ere. Bestalde, mundua agertu zitzaidan. Italiara ikasi nuen, pixka bat irakurriz, zinemara joanez...

Puntista karrera egiten zu, beti Amerika amets.

Baina hara joateko errazago zen Bartzelonako frontoiaren bidea egitea, Milan-goa baino, eta Kataluniara joan nintzen. Urte eta erdi egin nuen.

Zure bidean aurrera, Bartzelonatik Amerikara joan zinen.

Floridara joateko kontratua eskaini zidaten, Tampa hirira, 1973an. Hala ere, 1974ko urtarrilaren lehenengoan hasi genuen denboraldia. 45 ginen, helduak batetik, gazteak bestetik, nork bere buruari begiratzen zion han. Ni, neure sokakoekin elkartu nintzen, ohi denez, Hernaniko Lujanbio, Sebastian Arruabarrena Astigarragakoa, Alkorta mutrikuarra...

Eta zer zen Amerika?

Hura deskubrimendua! Paisajea, klima, frontoia –leporaino beteta egunero–, neskak nonahi, ondo ikusiak gu pilotariok... Oso garai polita izan zen. Gure artean lehia handia zegoen; Tampan, gure frontoian lehia lasai xamarra, baina, Miamikoan, basatia. Gure hiria ere Miamikoa baino lasaiagoa zen, latino asko ere bai hemen, Kubatik joandakoak ere bai... Tampan, amerikarrak ziren gehienak. Han ere hizkuntza ikasi nuen, eta unibertsitatean ere hasi nintzen, zertarako ari nintzen jakin gabe ere.

Unibertsitatean ere ikasten pilotaria?

Bai. Kar, kar... Soziologia gaiak, antropologia... gai horietarako joera izan dut beti.

Ez ziren asko izango zure modukoak.

Ez, garai hartan batere ez. Gaur egun bai, badira unibertsitatean ikasten ari direnak. Konturatu dira pilota eta gero ere bizitza dagoela. Gure garaian bestela zen, erretiratu arte seguru zen pilotaria, hala ikusten genuen. Ni, 20 urte eta zerbaitekin ikasten hasi nintzen, baina presarik gabe. 40 urterekin ere jokatzen

Patxadaz

“Gogoratzen naiz Hartford eta Bridgeport-eko pilotariak bilerak egiten hasi ginenean, han azaldu zela behin, Egurbide. Intendente ari zen beste frontoi batean, baina denboraldia hasi gabe zegoen. Hartu ninduen eta galdetu zidan: ‘Hi, uste duk grebara joko duzuela?’, eta nik: ‘Ezta pentsatu ere! Bilerak egiten ari gara, patxadaz, elkarteak sortu...’ Horixe pentsatzen nuen. Baina handik hiru astera kale gorrian ginen denok!”

Egurra, latz!

“Amerikan paradisuan bizi ginen eta, aldiz, uste genuen hura infernua zela. Beti protesta jotzen ari ginen. Frontoiak lepo betetzen ziren, enpresaburuek diru asko irabazten zuten, zegokiguna baino gutxiago irabazten genuen, seguru asko. Lanean beti dago protesta jotzeko arrazoirik. Gure kasuan, ez genuen asmatu egoera kudeatzen, ez genuen gerririk izan. Muturreko jarrerak hartu genituen: ‘Egurra, latz!’, esaten genuen”.

Eskiolak

“Gure frontoiaren itzalean, pilotari amateurren mundua sortu zen, eta guk haiei saltzen genizkien erabilitako xextoak. Guk grebara jo genuenean, eskirol joateko aukera izan zutenean, gure frontoira zuzen, guk saldutako xextoak hartuta! Kar, kar... Mutrikuar batek esaten zuena: ‘Zer uste zenuten, bada, zertarako nahi zituztela gazte hauek?’”

ikusten nuen neure burua. Bestalde, Euskal Herrira begira bizi nintzen, Trantsizioa ere hor zen. Han izan ez banintz, ez dakit non bukatuko nuen hemen. Gogoratzen dut bazela aldizkari bat, *Triunfo*, Alderdi Komunistarena, eta Eduardo Haro Tecglen-en artikulu onak. *Zeruko Argia* ere jasotzen nuen.

Zeruko Argia ere bai.


Bai. Floridan bizi nintzen, baina Euskal Herrira begira. Han baina hemen. Tampan eta Ocalan-en jokatzen nuen, eta bi hilabete Euskal Herrian izaten nintzen. Hurrena, Bridgeport-eko frontoira joateko eskaintza egin zidaten: bost-sei hilabeteko sasoia zen han, eta udako jaialdiak hemen. Barruan sartuta neukan honako gogoia, eta etorri nintzen. Eta emaztea izango nuena ezagutu nuen, ezkondu ginen, eta Bridgeportera etorri zen. Baina muturra hemen sartua neukan ordurako.

Greba sonatua etorri zen tartean.

1988an grebara jo genuen. Diru eskaerak izan ziren lehen gauza. Horretarako, *jai-alai player*-en [puntista jokalarien] sindikatua sortzea erabaki zen. Gainera, ni jokatzen ari nintzen frontoian sortu zen txinperta. Gernikako Pedro Olarretak deitu gintuen; zerbait esan nahi zigula. Panfleto bat irakurri zigun esanez enpresak soldatak bi halakotzen ez bazituen gose grebari ekingo ziola. Ez genion kasu handirik egin, baina intendenteak Olarretarena jakin zuenean kaleratu egin zuen. Hala ere, Olarretaren kezka hura jaso egin zuten batzuek, eta sindikatua sortzeari ekin zioten. Abokatu bat ere hartu zuten, eta aurrera. Gauza moderatu xamarra zela esango nuke. Gero, orde, elementu muturrekoek hartu zuten prozesu haren gidaritza, enpresa beraren jarrera ere gogortu egin zen.

Lehertu egin zen gauza.

Enpresak gogor, eta jokalaria ere gogor. “Egurra eman beharra zagok hemen!”, esan zuten batzuek, eta sekulakoa sortu zen. Euskaldun bero borrokalaria atera zen gure barruetatik, eta hordago handira! 600 bat pilotari greban, hamalau bat frontoi itxita Floridan eta Connecticut-en. Enpresak, orduan, eskirolak kontratatzen hasi ziren, amerikarrak batzuk, gure artekoak ere bai beste batzuk. Eta gutxieneko batzuk bete



Off the record:

Txik-txak!

Ezohiko pilotaria da Juan Ignazio Zulaika. Betikoa du aitagandik jasotako irakurtzeko zaletasuna. Maximo Gorki, Honorato Balzac, Pio Baroja... irakurri zituen gazterik etxean. Italian pilotari ari zela, berriz, Henri Charriere-ren *Papillon*, Mario Puzzoren *Aitaordea*... eta beste hainbat. Lehen, irakurri. Orain, irakurri eta idatzi egiten du, txik-txak, zesta jokalariairen jokaldian.

eta frontoiak atzera irekitzen hasi ziren. Jende gutxi bildu zen frontoietara, apustuak ere barregarriak, baina mugimendua puskatzeko itxaropenarekin enpresaburuak. Gu, berriz, piketeetan, frontoiei bueltaka, filmetan bezala.

Argazkiak ere badira.

Segituan konponduko zela uste genuena, bihurritu egin zen. Bide judiziale-tik jo zuen gauzak. "Lasai egon mutilak, denok hartu beharko gaituzte berriz, eta atzeratutako diruak ere jasoko dituzue", esaten ziguten gureek. Baina luze jo zuen, eta nik, halako batean, erabaki pertsonala hartu nuen. "Nik ez dut etorkizunik ikusten, banoak Euskal Herrira", esan eta etorri nintzen.

Zer diozu oraingo egunean greba gogor eta luze hartaz?

Oso gai konplexua da, oso konplexua,

irakurketa eta bertsio ezberdinak baitaude. Momentu jakin bat gertatu zen, lidergoa ere halakoa, euskaldunon egoskorkeria ere hortxe... Ikusmoldearen arabera, gure jokabidea heroikoa izan zen, edo kixoteskoa. Borrokarako grina hura ikaragarria izan zen. Baina esan ditzut, azkenean nik neure erabakia hartu eta etorri nintzen. Zenbait partida ere jokatu nituen hemen, baina gutxi batzuk besterik ez. Ilusiorik ez, goi mailan jokatzeko ere zalantzak, eta 1992an utzi egin nuen. 36 urte nituen, eta bitartean, greba hasi zenetik, bi urte egon nintzen xextoa hartu gabe.

Horrelaxe amaitu zen zure jai-alaiaren Amerikari, eta jai-alaiaren bera ere bai kasik.

Bai. Pilotari batzuk etorri egin ziren, nahiz eta gehienak han geratu, bizimodu han eginga zeukaten eta. Nire anaia, adibidez... Azkenean, epaileek arrazoia

eman zioten gure sindikatuari, enpresaburuak jokalaria berrartzera behartu zituzten, baina frontoia ez zen lehengoraitzuli. Grebak iraun zuen bitartean, bestalde, era guztietako joko, loteria eta apustuak zabaldu ziren, eta kito frontoiak. Bata bestearen ondoren itxi ziren.

Jai Alai Blues dokumentalak horixe kontatzen du, partez.

Bai, bada. Gaur egun bi frontoi dira, bata erdipurdika. Are gehiago, legeak aginduta irauten dute frontoiek irekita, zeren apustu baimenari eutsi nahi badiote, jai-alai eskaintzera behartuta daude bi frontoi horiek irekita. Ez da inor ikus-tera joaten, baina frontoiak derrigortuta daude partidak antolatzea. Orain 70 bat pilotari izango dira han. Hemen eskuz ari direnak baino gehiago, hemen 48 baitira. Hala ere, ez dute zarata makala ateratzen. Kar, kar... ■

BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA
2017

Final laurdenak

Irailak 23, BAIGORRI
Irailak 30, SEGURA
Urriak 1, LEITZA

Urriak 7, ZALLA
Urriak 8, ZUMAIA
Urriak 14, TOLOSA

Antolatzailea

Laguntzailea



ARGIA

bertsozale.eus

Belaunaldi berriko merkataritza itunak

Duela gutxi arte arrotz ziren guretzat TTIP, CETA eta gisa bereko merkataritza itunak. Belaunaldi berriko merkataritza akordioak dira, eta elite pribatuen interesak indartzea helburu izanik, boteretsuenen alde egiteko tresnak.

Bestela esanda, jabekuntza-desjabetzearen prozesuak areagotzen dituzten makineria dira: nazioarteko enpresak geroz eta eskubide gehiagoren jabe izan daitezen, pertsonak, jendartea, gizarte antolatua, emakumeak, etorkinak, langileak, ingurumena eskubidez desjabetzen dituzten bitartean. *Harvey* urakanaren irudira, parean duten guttia suntsitzeko gaitasuna dute akordio horiek. *Harvey* geografoak ezin hobeto jaso zuen “desjabetzearen bidezko metaketa” kontzeptuaren barruan bete-betean erortzen dira.

Belaunaldi berriko akordio horien amarruetako bat, Inbertsore-Estatua auziak ebazteko aurreikusten diren tribunal pribatuen sistema dugu. Mekanismo horri esker, enpresa transnasionalek zabalik dute zuzenean herrialde bateko gobernuaren aurka egiteko bidea. Esate baterako, eskualde jakin bateko gobernuak bere esparruan enplegu lokala sustatzeko gaitasuna ezabatuko litzateke. Merkataritza-pakete horien bitartez bermatu nahi da atzerriko edozein enpresak, tokian tokiko enpresen eskubide berberak izango dituztela. Argudio nahikoa da hori enpresa transnazonalarentzat, tokian tokiko gobernuen aurka auziak irekitzeko. Auziok, isun ekonomiko astronomikoak ekartzeaz gain, demokraziaren aurkako eraso larria dira. Izan ere, tokian tokiko gobernuen burujabetza odolustuta geratzen baita.

Akordio Transpazifikoa (TPP) Ozeano Barearen inguruko hamabi estatu biltzen ditu (Japonia, Kanada, Malaysia, Singapur...) eta harritzekoa badirudi



Aiala Elorrieta
EKONOMIALARIA

Gizartearen presiorik gabe, CETA EBren erabateko eskumeneko akordiotzat joko zen eta Europako Kontseiluak eta Parlamentuak onetsi beharko lukete soilik. Baina gizarte presioaren ondorioz, Europako Batzordeak onartu behar izan du akordioak EBko estatu kideen eskumenak ukitzen dituela eta beraz, izaera mistoa duela

ere, AEBen ezezkoa izan zen 2017ko urtarrilean akordioa bertan behera utzi zuena. Zenbait komunikabide eta botere ekonomikok haustura hura Donald Trumpekin erlazionatzen duten arren, badago bestelako azalpenik. Egiaitan,

Trump gobernura heldu baino hilabete batzuk lehenago, hitzarmena erorita zegoen AEBetan: mugimendu sozial eta sindikalaren indarrari esker, Barack Obamak ez zuen behar adina sostengu lortu TPP aurrera ateratzeko.

Europar ere protesta antolatuak bere emaitzak jaso ditu TTIP eta CETArekin aurkako borrokan, beren onarpena kolokan jartzeraino. Gizartearen presiorik gabe, CETA Europar Batasunaren (EB) erabateko eskumeneko akordiotzat joko zen eta Europako Kontseiluak eta Parlamentuak onetsi beharko lukete soilik. Baina gizarte presioaren ondorioz, Europako Batzordeak onartu behar izan du akordioak EBko estatu kideen eskumenak ukitzen dituela eta beraz, izaera mistoa duela. Hori dela eta, onartua izan dadin 28 estatu kideek eta zenbait gobernu erregionalek berretsi behar dute.

Akordioen bultzatzaileak, tamalez, etengabe azpilanean ari dira eta mehatxu berria jaurti dute berriki EBtik. Jean-Luc Demartyk –Europako Batzordeko Merkataritza saileko arduradunak– aditzera eman du aurrerantzean merkataritza hitzarmenak berresteko bidea aldatu nahi dutela. *Aldatu*-rekin esan nahi du: akordioen berronespena azkartu eta bidean sor daitezkeen trabak aurretik kendu. Finean, akordioak gaika apurtuta EBko herrialde kideen parte-hartzea saihestu nahi da. Horrela, lehenik eta behin Europako Batzordeak EBren eskumen eskusiboak ukitzen dituen kapituluak hitzartuko litzuzke eta kanpo geratzen diren gaiak, gerora, banan-banan negoziatuko lirateke.

Harvey-ren atzetik *Irma* heldu da bidean topatu duen oro astinduz. Belaunaldi berriko merkataritza akordioak, izenez eta formaz mutatzeko diseinatu daude, kosta ahala kosta, beraien egitekoa burutu dezaten: desjabetzearen bidezko pilaketa. ■

Tren mantso horrek merezi al du hausturarik?

Orain arte mantso-mantso joan den tren lasterraren proiektuak arrakala sortu du Nafarroako Gobernuari sostengua ematen dioten artean. Geroa Bai azpiegituraren aldekoa den bitartean, EH Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerra aurka daude. Gure go-go holako loturak egiten trebea baita, nik *tren lasterra* kontzeptua entzuten dudak bakoitzean pasadizo bat gogoratzen dut: XX. mende hasierako base-rritar bikote ezkonberria Irunera joan da, Madrilerako trena hartzeko. Sekula holakorik egin gabeak izanik, pozik daude oso, ezkonbidaia lehenbizikoa eta azkena ere izan zitekeela jakitun.

“Goizian irten Irundik eta/iluntzerako Madrila”. *Txirrita*-k kantatu bezalako bidaia luzea da hori: hamabi ordukoa. Ezkonberriek ibilbidea egin duten egunean, ordea, Norteko Ferrokarrila uste baino azkarxeago joan da. Abiatu direnetik hamaika ordura Madrilen dira gazteak. Eta zein da bikotearen erreakzioa? Gaurko talaiaiek begiratu harrigarria iruditzen arren, goibel daude biak, bidaia uste baino laburragoa izan delako. Bidaia ordu bat kendu dietela iruditzen zaie.

Abiadura handiko trena ezagutu ez zuen bikote hark, seguruenik, guk baino gehiago zekien bizitzaren bidaiaz. Gauza jakina da orain oso azkar bizi garela,



Fermin Erbiti Zabalza

KAZETARIA

Berriki jakin dugunez, Estatuak hartuko du bere gain obra lanen kudeaketa osoa, Nafarroako Gobernuak horretan aitzina egiteko asmorik ez duela argudiatuta. Albisteak pozgarria ez izan arren, alde onik ere badu: gaiak laukoan sorturiko tentsioa gutxitzen lagungarri izan daiteke

azkarregi. Eta bidaia ere horrela egin nahi dugu: ziztu bizian batetik bestera, ahalik eta azkarren heltzeko, helmuga besterik ez gogoan. Trenean ere, tre-peta elektronikoren bat mahai gainean paratuta joanen gara, telefonoari eten-gabe begiratzuz, kaskoak belarrietan jantzita. Paisaiari eta ondoan dugarri kasurik egin gabe, hori dena denbora galtze hutsa delakoan. Gaurko gizartean ahantzirik dago bidaiaaren plazera, erre-mediorekin gabe.

Eta erre-mediorekin izanen al du etorkizuneko trenak laukoan sortu duen pitzadura? Geroak esanen digu. Berriki jakin dugunez, Estatuak hartuko du bere gain obra lanen kudeaketa osoa, Nafarroako Gobernuak horretan aitzina egiteko asmorik ez duela argudiatuta. Albisteak pozgarria ez izan arren, alde onik ere badu: gaiak laukoan sorturiko tentsioa gutxitzen lagungarri izan daiteke. Nire ustetan, aldeko zein aurkakoez tren lasterraren orain arteko abiadurari erreparatu beharko liokete, desadostasunak hausturarik ez duela merezi frogatzeko. Esan bezala, proiektua Nafarroa eta Gipuzkoa lotzen zituen *Plazaola* zaharra baino mantsoago ibili da orain arte, hemen eta Estatu osoan; eta legegintzaldia amaitzeko falta diren bi urteetan ere, nekez hartuko du abiadura handirik. ■



Eskuernaga (Arabar Errioxa)
Tel.: + 34 945 623 355 / 685 738 193
www.candidobesa.com



Ikusezinak sarituz



Eneko Olasagasti
ZINEMAGILEA

Seguruenik nire ikasle izandakoek berehala ezagutuko dute segidan kontatuko dudana izan da, niretzat behintzat irakaspen handia ekarri zuelako.

Carlos Zabala eta biok zuzendu genuen lehen filma, *Maité*, muntatzen hasteko unean zen. Igara auzoko lokaltxo batean antolatua zen ekoiztetxea, ordu mordo pasako genuen lantokia. Bertaratu ginen lehen egunean muntatzaileak, Antonio Reinak, sartu eta *botepronton* ondorengo galdera bota zigun: “Zein da gela honetako tresnarik garrantzizkoena?”. Garai hartan, 1994. urtea, filmak mobiolan muntatzen ziren, 35 milimetroko pelikula guraizez moztuz eta zatiak zelos pegatuz. Carlos eta biok elkar begiratu genuen eta aurrean genituen tresnetan zein izango zen inportanteena asmatzeko ahaleginean jardun genuen. Izenak botatzen hasi ginen: “Pelikula?”. “Ez”, erantzun zigun Antoniok. “Mobiola?”. “Ez”. “Pantaila?”. “Ez”. “Guraizeak?”. “Ez”. “Zeloa?”. “Ez”. Jode! Ez zen bada, aipatzeko askoz tresna gehiago geratzen... “Errodajeko kamara partea?”. “Ez”. Non zegoen, ba, trukoa? Ez dakit horrela izango zen, baina Antonio irribarrez imajinatzen dut gure aurpegi inozoei begira. Eta asmatzen ez genuela ikusita, berak mahai ondora begiratzuz, zakarrontzia seinalatu zuen. “Zakarrontzia?”. Guk. “Bai, zakarrontzia”, esan zuen, eta “zenbat eta beteago egon pelikula hobea izango da”.

Askotan gogoratu izan dut nire bizitzan pasarte hura eta ez soilik zerbait muntatzen aritu naizean. Pasarte hura berriro etorri zait gogora egun hauetan ospatzen ari den Zinemaldiko Zinemira saria Julia Juaniz muntatzaileari emango diotela jakin dudanean. Izugarri poztu naiz. Ezagutzen dudalako batetik, eta bestetik gure munduko ofizio ikusezin bat, beste askoren artean, ordezkatzeko duelako. Eta gainera emakumea delako. Luze joko luke haren curriculumazaltzeak, eta ez daukagu horretarako tokirik hemen, baina izen handiko zinemagile askoren zakarrontzia betetzen aritu izan da urtetan. Eskertzekoa da, benetan, Rebordinos eta koadrila berarekin gogoratu izana.

Sariak banatzeko orduan, hor daukagu Zinemaldiko ikurra den Donostia Saria, aktoreak dira aukeratuak. Behin eman zioten Francis Ford Coppolari eta bada esaten duenik, gaur egun, zergatik diren beti aktoreak. Eta gehienetan kanpotarrak. Baina hori ez da gaurko gaia. Zinemirarekin ez da berdintsu gertatzen, saritu izan baitira musikariak eta argazki zuzendariak, makillatzaileak... Agian non aukeratu zailagoa delako? Ezetz pentsatu nahi dut. Eta horregatik poztu naiz. Julia bezalako langile ikusezin askoz beteta baitago zinema mundua. Hala ere, alfonbra gorriak markatzen duen bidetik ibiltzea gustatzen zaigu. Eta aitzakia ona da armairuan gordeta dugun jaka amerikana edo soineko eder bat jantzeko. Zu txalotzeko jantziko dut, Julia. ■

Epika



Edu Zelaiaeta
IDAZLEA

Epika itzuli da gure karrika-kaleetara ikasurte berriarekin batean. Erraz sumatzen da hori, adibidez, Gasteiz batean. Espainiako saskibaloi selekzio maskulinoaren kartelak ez du zalantzarako zirrikitu handirik uzten, ez jokalarien poseak, ez idatziz ageri den mezuak. Kausa noble baterako garaipenak epika behar du. Epika merezi du.

Globalak eta postmodernoak garen honetan, odola eta izerdia agertzen dituen epika maite dugu, betiko maitasuna maite dugun bezalaxe. Eta ez naiz ari Espainiako espiritua elikatzeaz bakarrik: Euskal Herriko sinbologiarekin joka-

tzen duten Alaveseko nahiz Baskoniako kartelek ere argi erakusten dute hori, bai bazkide berriak lortzeko kanpainaren bitartez, bai hurrengo partida iragartzeko irudiaren bitartez. Kausaren izena aldatzen da; ez, ordea, epika handirako grina.

Kirola eta politika ez direla nahasi behar maiz oroitarazten dute ahots batzuek; batez ere, kirolaren eremuan hainbat aldarrikapen (deseroso) plazaratzen direlarik. Epika zaharra noiznahi berritzea ez dago politikarekin lotua, nonbait ere. Garaileen ereduak ez bide da molestagarria inorentzat. Ez eta galtzaile direnentzat ere. ■

Murruak

Udako pausaldia aitzin bere azken iritzia ematean, Bea Salaberrik aipatu zuen Baigorri beharrak zirela “Antilletan bizi” deitu egunak, agorrilaren 11 eta 12an, Euskal Herriko Unibertsitate Herrikoia (EHUH) elkar-teak antolaturik, azpimarratuz kanpo-tiarrekilako trukaketek “birzentratzen” lagun gaitzaketela. Jardunaldietatik landa, horien nondik norakoaz gogoeta anitz baliteke egiteko. Zenbaitzuk soilik plazara ditzaket hemen.

Euskaldunon euskalduntasuna eta mundutartasunaren arteko korapiloak galdekatu nahiz, eta Édouard Glissant eta Patrick Chamoiseau martinikar filosofo ezagunen *Murruak erortzean: nortasun nazionala legez kanpo?* testutik abiatuz antolatu dira beraz eztabaidak honelako gonbidatuekin: J. Sarasua, I. Borda, L. Etxezaharreta, B. Axiari, N. Arbelbide, X. Aire, J. A. Urbeltz eta G. Yovan.

Ororen buru, iruditu zait bi ildotik aritu direla hizlariak: batzuk mintzatu dira ikuspegi poetiko batetik hizkuntzen edertasun berdinez, kulturen artean harreman baketsuak eraikitze beharraz, menderatzaile-menderatu etsaitasunetik at; beste batzuk oinarritu dira euskararen egoera kezagarrian, azalduz premiatsuen dela gure hizkuntza gutxitua biziberritzeko aterabideak aurkitzea, geure barne indarretik, gure hibridotasunaz kontziente izanez eta kanpokoari irekiak egonez. Lehen postura biziki erakargarria zait: etengabeko borrokan ezin irauteko menturan, nahiko nuke nik ere goratasunez eta zuhurtzia lasaiaz gozatu bizi dugun hizkuntz eta kultur aniztasuna –hein batean, fantasma hori gauzatzen dut lanean, jatorri ezberdineko ikasle eta lankideekin, bai eta intimitatean ere, irakurketa nasaien bidez. Halere, bigarren postura gatazkatsura daukat isuria ene harreman soziale-tan, etxean eta etxetik kanpo, bihotzean



Katixa Dolhare-Zaldunbide

IDAZLEA



Antton Olariaga

errotutako beharra dudalako bizi dugun zuzengabekeriaren kontra ihardukitzea eta geurearen zaintzea, beste injustiziarik eragin gabe eta ahal bezain baikor iraunez. Hori desira eta errealtatea latzaren arteko auzi (murru?) minbera...

“Antilletan bizi” egun horiek interresgarriak izan dira ere ohartzeko guk euskaldunok gure nortasuna hizkuntzan sustraitzen dugun bezala, Martinikarrak Bèlè delakoan dutela egiten, hau da dantza, musika eta kreolerazko kantuak batzen dituen espresio artistikoa, baina gehiago ere, bizitza ikusteko manera berezia, hots, omen, martinikar arima bera. Parisko Lékol Bèlètik hogeitabat martinikar jinak ziren Baigorriara “Moman Bèlè” edo Bèlè une baten partekatzerara tokiko jendearekin.

Haiekin iragan azken gaualdiaren amaieran, taldeko *tanbouyé* edo atabal joilea elekatzen gertatu naiz. Bere ibilbidea honela kontatu dit: “Badakizu, Martinikatik joan naizelarik lan xerka Parisera, duela 15 urte, sentitu dut ene baitan ene nortasuna berreskuratzeko eta elikatzeko beharra. Bèlè eskolan ibili nintzen, eta orain Bèlè praktikatzailerik gisa definitzen dut ene martinikar nortasuna. Lantokiko pasabideetan trebatu ditut dantza urratsak eta ene lankideekin –horiek ni bezala martinikarrak direla eta– kreolera funtsez berrikasidut”. Eta nik, inuxent: “Eta zertan ari zira lanean?”. “Zaindaria naiz presondegi batean”. Ene harriduran, berehala irudikatu nuen mutiko irritsu eta alai hori espetxearen murruek alde batetik, bere nortasuna birbiziarazteko ahaleginak egiten, pasabideetan dantzan eta lankideekin kreoleraz tira-ahala mintzo, eta murruek bestaldek euskal presoren bat, baigorriarra edo hurbilekoa izan zitekeena, euskara lantzen ari EGA pasatzeko... “Murruak eror bitez”, diote Édouard Glissant eta Patrick Chamoiseau. ■



Dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegirik osatuena sarean

OSTIRALERO LAN BERRI BAT LIBRE ETA DOAN IKUSGAI

AZKEN ESTREINALDIAK

- Echevarriatik Etxeberriara
- Orain bakea, herriaren eskaera
- Gazteak Kalean!
- Helmugarik garrantzitsuena bidea denean
- Kopiatu madarikatuak!
- Baraka
- Mongoliatik nator
- Berri Txarrak: Iragana aurretik
- Koldo Mitxelena 1915-1987
- Armstrongen gezurra
- Zertarako amestu
- Altzairuzko emakumeak
- Gaur irekiko ditu ateak
- Amets Nagusia, ametsa jai bihurtu zen

- Xalbador izana eta izena
- Komedia serio bat
- Euskara Munduan
- Zenbait gazte ausart
- Hirugarren Reicharen euskal esklaboak
- Maitia nun zira?
- Igandean, arratsaldeko bostetan
- Mezuak Mendebaldeko Saharatik
- Oma: Sekretuz beteriko basoa
- Plus Ultra, frankismoaren arrastoak
- EHLGk 10 urte
- 120 ordu - Euskal Herriaren aurkako tortura
- Energia trantsizioak, piztu aldaketa!
- Sukaldetik plazara
- Beltzean mintzo: Amerikako hizkuntzen arnasaz

Dokumentalen bat egin baduzu, eta kanal honetan denentzat eskuragarri jarri nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.eus

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

 **ARGIA**

www.argia.eus/multimedia/dokumentalak



Euskal Herriko industria militarra

ETXEAN USO KANPOAN KONDO

Indarkeria militarrek munduko edozein txokotan jendea hiltzea negozio da Euskal Herriko ehun bat enpresarentzat. Ez alferrik, erakunde publikoek industria hau sustatzen dutela azaldu digu Gasteizkoak kolektiboak. Aldiz, herritarrok zeharo hunkitzen gara, eta asaldatzen, arma hauek sortzen duten tragediaren irudiak ikustean. Gertaera horietan Euskal Herriak duen parte-hartzea ezkututzen zaigu, edo ez jakitea dugu nahiago? Bitartean, euskal herritarren eguneroko bizitza ere gero eta militarizatuago dugu.



Estitxu Eizagirre Kerejeta


@eeizagirre

Urte onak izaten omen dira “krisiak” arma industriarentzat. Hala azaldu digute Gasteizkoak kolektiboko kideek, eta hala dute kontatua 2016an argitaratu zuten *Estas guerras son muy nuestras* liburu txit gomendagarrian. “Krisi garaietan nabarmena izaten da gastu soziala murriztearekin batera nola handitzen den eremu militarreko gastua. Hala egin zuen Espainiako Gobernuan Felipe Gonzalezek, eta Euskal Herriko armagintza berpiztea ekarri zuen. Ondoren José

María Aznarrek gauza bera egin zuen Armamenturako Programa Bereziak (PEAS gaztelarazko sigletan) martxan jarrita”. Liburuan kontatua dute Armamenturako Programa Berezi horien sorreran Getxoko Pedro Morenes izan zela bultzatzaile nagusietakoa, aurretik Sapa arma enpresako kontseilari izana eta Estatu-ko Defentsa Idazkari kargua zuena. Eta delako programa hauek 30.000 milioi eurotik gorako zor publikoa eragin dutela. “Gaur egun Programa Berezi horiez gain, estatuak Europako Horizon 2020 programarekin bat egin du, eta enpresak esportazioetara jarrita daude”.

2017an, gainera, aldaketa handi bat onartu du Espainiako Kongresuak, Gas-

teizkoak kolektiboaren hitzetan: “Orain arte gastu militarren zati bat baizik ez zen Gobernuaren aurrekontuetan agertzen, eta urtean zehar %30 gehiago gastatzen zuten Armamenturako Programa Bereziekin. Alegia, gastu militarra moztaratu egiten zuten. Aurretik, ordea, diru partida osoa Gobernuaren aurrekontuetan sartu dute eta beraz, Defentsa Ministerioaren aurrekontua %30 handitu da. Ikusi beharko da urte amaieran benetan gastatutakoa hori den edo are gehiago den. Krisialdi betean egonda ere, tamalez, ez du batere eztabaidarik piztu Defentsa Ministerioaren aurrekontua heren bat handitu izanak”. 2017an munduan I+G-ra bideratu den inbertsio



EUSKAL HERRIKO ENPRESEK ESPOSTATUTAKO ARMAMENTUA (2015-2017):

Delas Zentruaren mapak erakusten ditu gerran diren herrialdeak (gorriz), barne gatazkak dituzten puntu beroak (laranjaz) eta gerretan parte hartzen ari diren herrialdeak (horiz). Bildu ditugun datuekin kokatu ditugu mapan puntu beltzak: hauek erakusten dute Euskal Herriko enpresek puntuak markatutako herrialdera gai militarrek esportatu dituztela. Enpresek ez dute obligaziorik expotazio hauek publiko egiteko eta beraz, ditugun datuak izebergaren punta baino ez dira. Horien artean nabarmentzen dira: Saudi Arabiara esportatutakoak Sapa eta Sener enpresek; Turkiara Sapak; Egiptora Sapak; eta Indiara Sapa eta Goratu-k.

Euskal Herriko enpresen armamentua erosi duten herrialdeek gerretan duten parte-hartzea agerikoa da. Dakigula, herrialde hauek gerretan erabili dituzten hegazkinen piezak ere Euskal Herrian eginak dira: Eurofighter hegazkina Siria bonbardatzeko erabili dute bai Saudi Arabiak baita Erresuma Batuak ere. Eurocopterra Afganistango gerran erabili zuen Frantziak, Tauro eta Iris-T misilekin.

Iturriak: *Estas guerras son muy nuestras* (Gasteizkoak kolektiboa), www.tedae.org, www.itp.es.

osoaren heren bat eremu militarrekoa izan da, “krisialdian” Gobernuek ekonomia suspertzeko zeren aldeko apustu egiten duten adierazten duena.

Aipatutako Programa Bereziek, arma industria sustatzeko, Espainiako Armadaren gailuak berritzea edo gehitzea bilatzen dute eta Euskal Herriko enpresentzat kontratu handiak dira hauek. European Horizon 2020 Programak antzeko funtzioa betetzen du: webgune ofizialaren arabera, ikerketa eta berrikuntza du helburu, gizartearen erronkei erantzuteko, eta praktikan, azalpen orokor hori konkretatzen da, beste askoren artean, gailu militarrek garatzean. Ondoko orrian dituzu Espainiako eta Eu-

ropako programa horien barruan egiten diren hainbat gailu. Ezagunenak soilik, guztira askoz ere gehiago baitira.

Eta Euskal Herrian? Gasteizkoak kolektiboak ohartarazi du Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak Barne sailera bideratzen duten diru partida ez dutela batere murriztu: “Bere garaian erakundeek esaten zuten ETArein indarkeria zela arrazoi baliabide gero eta gehiago bideratzeko. Ofizialki 6 urte omen dira bakean gaudela eta Barne saileko diru partidak ez dira murriztu”. Jihadisten Kataluniako atentatuaren ostean, “segurtasunaren” izenean kontrol poliziala are gehiago handituko duten susmoa du Gasteizkoak kolektiboak, eta

kontrol hori puntako teknologia garatuz egingo dela.

Jaurlaritzak zer dio?

14/2007 Legeak, *Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutuna* denak, haxe dio 3. artikuluko 3. puntuan: “Enpresak lagundu eta sustatzeko politikan, Eusko Jaurlaritza ez da inolaz ere elkarlanean arituko armen ekoizpen, merkaturaketa eta finantzaketan ari diren pertsona fisiko edo juridikoekin”. Gasteizkoak kolektiboak *Estas guerras son muy nuestras* liburuan azaldua du lege hori buletin ofizialean argitaratu eta handik astebetera publiko egin zela Jaurlaritzak Saperi emandako diru

EUSKAL HERRIAN EGINDAKO PIEZAK DITUZTEN GAILU MILITAR NAGUSIAK



TYPHOON EUROFIGHTER

Proiektu europarra lau herrialde eta hiru enpresak osatzen dute: Erresuma Batua (%33ko parte-hartzea) BAE Systems enpresarekin; Alemania (%22) eta Espainia (%13) Airbus DS enpresarekin biak; eta Italia (%21) Leonardorekin. Eurofighter da erasorako erabiltzen duten hegazkina herrialde hauek: Erresuma Batua, Alemania, Italia, Espainia, Austria eta Saudi Arabia. Euskal enpresa hauek parte hartzen dute hegazkinak egiten:

- Aeroegiturak: Aciturri, Aernnova, Alfa Precision Casting, Metraltec.
- Motorrak: Aciturri, Aeromec, Electrohilo, TTT Taldea, Imedusa, ITP, Novalti (ITPrenztat), Nuter (ITPrenztat), Siegel (ITPrenztat), Wec (ITPrenztat), Sistemak eta ekipamenduak, DMP, Orbital Critical Systems.
- Sistemak eta ekipamenduak: Sener.
- Mantenimendua: ITP.

PISTOLAK ETA KARTUTXOAK

Berrettak Espainiako Polizia eta Guardia Zibilari saltzen dizkie kartutxoak: 9 mm-ko kalibreko parabellum blindatuak eta 9x19 mm-ko NATO arruntak. Eta pistolak: 92 PS eta FS modeluak.



AIRBUS A400M

Garraio militararako hegazkina eta hegazkin zisterna. Europako proiektu honetan kide dira Frantzia, Alemania, Italia, Espainia, Erresuma Batua, Turkia, Belgika eta Luxenburgok.

Honen zatiak egiten dituzten euskal enpresak:

- Aeroegiturak: Aciturri, Alestis, Ayesa Air Control, TTT Taldea, Khegal Aeronautica, LTK Taldea, Aernova.
- Motorrak: Aciturri, Astorika (ITPrenztat), Batz (IPTrenztat), Electrohilo, Imedusa, ITP, Novalti (ITPrenztat), Nuter (ITPrenztat), Siegel (ITPrenztat), WEC.
- Sistemak eta ekipamenduak: CTA, Nuter, Orbital Critical Systems, WEC, Sener.
- Mantenimendua: Orbital Critical Systems.



PREDATOR B/MQ-9 REAPER

Erasorako dronea da, gidaririk gabea. Espainiako Armadak horrelako lau hegazkin erosi ditu. General Atomics estatubatuarra da ekoizten dituen, eta Sener da bere sozio teknologikoa Reaper-a Espainian sartzeko: Berak lideratuko du estatuko produkzioa.



EUROCOPTER EC665

Erasorako helikopteroa, *Tigre* izenez ezagutzen da. Airbus Helicopters-ek ekoizten du, Frantzia-Espainia-Alemanien arteko elkarlanean. Bere zatiak egiten dituzten euskal enpresak:

- Aeroegiturak: Aernnova.
- Motorrak: DMP (ITPrenztat), ITP, Novalti.
- Sistemak eta ekipamenduak: Sener.



NH90 HELIKOPTEROA

NHI Industries enpresak ekoizten du. Enpresa honen jabe dira Eurocopter (%62,5), Leonardo (izen hori hartu du 2017an, Finmeccanica zenak) eta Stork Fokker Aerospace. Bere zatiak egiten dituzten euskal enpresak:

- Aeroegiturak: Aciturri, Aernnova, Dyfa.
- Motorrak: ITP.

-laguntza, "Saparen produkzioa ia bere osotasunean militarra denean".

Armagintzako enpresei diru-laguntzak emateaz gain, lehendakari zein sailburuek "herrialde beroetan enbaxadore lanak" egiten dituztela adierazi dute: "Brasilen izan da Jaurilaritza, baita Arabiar Emirerrietan ere, Kolonbian, eta Turkian. Berarekin joaten diren enpresen artean baten bat izan ohi da armak ekoizten dituen", merkatu berrietarako harreman sareak zabalduz: "bidaia horien ostean kontratuak agertzen dira".

Jaurilaritzak arma ekoizpenarekin duen inplikazioa lehen era agerikoagoan egiten zuela adierazi dute: "ITP arma enpresaren akzionista ere izan da garai batzuetan".

Erakunde publikoek armagintza sustatzeko duten beste modu bat, enpresa hauetako buruak prestigiatzea dela dioite: "Enpresari eredugarritzat aurkezten dizkigute. Senerreko jabe Sendagorta sendiari era guztietako sariak eman dizkiete, ITPren urteurren ekitaldira Ibarretxe Lehendakaria joan zen...". Gizartearen enpresari hauek duten zilegitasunaren adibide gordinena, Gasteizkoak kolektiboarentzat, Jokin Aperribay da: aldi berrean Sapako eta Realeko lehendakari da.

Kargu politikoen eta arma enpresen arteko lotura ikusteko, Sapa da kasu nabarmenena, garaian garaiko Gipuzkoako politikariei leku egin baitie enpresako karguetan: Ramon Labayen Donostiako alkatea; Francisco Asís Alonso Donostiako teniente-alkatea; Justo Espín An-

doaingo alkatea; eta azkena Jose Ignacio Asensio, 2015 arte Sapako zuzendari komertziala zena eta egun Aldundiko Ingurumen diputatua dena.

EHUK ere kolaboratzen du

Irailaren 7an jakin genuen, Gasteizkoak kolektiboaren eskutik, Euskal Herriko Unibertsitatea I+G garatzeko elkarlanean aritzen dela ITP arma enpresarekin. Informazio honen iturria Ikerketa Estrategikoetako Espainiako Institutuak (gaztelaraz IEEE, Espainiako Defentsa Ministerioaren erakundea da) argitaratzen duen *Cuadernos de Estrategia* da. *Cuadernos de Estrategia* honek oso argi azaltzen du unibertsitateek arma industriarekin kolaboratzeko duten modua: "Kolaborazio hau formalizatzen da



IRIS-T MISILA

Airetik airera botatzen den misila da eta 12 kilometrora iristeko gaitasuna du. Europako proiektua da, eta berau ekoizten partaide dira Alemania (40,5%), Espainia (21,3%), Italia (14,7%), Grezia (10,4%), Suedia (8,1%) eta Norvegia (5%). Espainiako Estatutik Sener izan zen industria bazkide hautatua, eta bere ardura da misilen hegoak eta misilen hegaldia kontrolatzeko sistemaren eragingailuak ekoiztea. Iris-T misilak Eurofighter hegazkinetan erabiltzen dituzte.



TAURUS KEPD 350 MISILA

Airetik lurrera botatzen da eta 350 kilometrora iristeko gai da. Hegazkinetik botatakoan, telegidatu daiteke misil hau. Alemania-Suediako Taurus Systems GmbH enpresak ekoizten du eta Sener da kontratista nagusia. Hau ere Eurofighter hegazkinetan erabiltzen dute.



F110 FRAGATA

Espainiako Armada lau fragata egiteko prozesuan sartua dago. Programa teknologikoa garatzeaz arduratzen da Protec 110 Aldi Baterako Enpresa Elkarte (ABEE) Navantia eta Indra-k osatua. Senerrek ere parte hartzen du programa teknologikoetako batean.



VCR 8X8 ERASORAKO GURPIL GAINEKO IBILGAILUA

Espainiako Lurreko Ejertzitoak 348 ibilgailu egitea agindu du. Hauek egiteko ABBE osatzen dute Sapa, Indra eta Santa Barbara Sistemak-ek.



LEOPARD 2E ERASORAKO ORGA

2008an 239 Leopard 2E orga egin zituzten Espainiako Lurreko Ejertzitoarentzako. Orga hauek 2025era arte martxan ariko direla aurreikusten dute. 2017an hauetako sei orga Letoniara eraman dituzte, NATOrekin. Sapa dago egileen artean.



PIZARRO ERASORAKO ORGA

2004tik 139 orga ekoizti dituzte Espainiako Armadarentzat. Orga hauen transmisioa diseinatu du Sapak eta proiektu honetan harremana egin zuen Amerikako Estatu Batuetako Armadarekin. Horren ondorioz, 2015ean lau urterako 30 milioi euroko kontratua sinatu zuen Sapak US Army-rekin, etorkizuneko bere orgetarako transmisioak diseinatzeko.

hitzarmenen bidez, bai modu zuzenean edo zentro teknologikoekin kolaboratzearen bidez. (...) Modu berean, ITPk kolaboratzen du EHuko Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoarekin, zeinetan nabarmen sustatzen diren Aeronautika Gela eta praktikak egiteko bekak. Gainera, kolaborazio honek sustatzen du Nafarroako Unibertsitateko Ingeniari-tza Eskolarekin doktorego tesiak egitea, karrera amaierako proiektuak eta laborategiko jarduerak. Hauen artean nabarmentzen dugu Zentro Teknologikoen ITP Jardunaldien lehen edizioa, 2015ean egindakoa (...). Jardunaldi hauetan izan ziren ITPrekin kolaboratzen duten erakunde hauek: Zamudioko Aeronautika Teknologien Zentrua, CEIT-IK4, Euskal Herriko Unibertsita-

tea, Mondragon Unibertsitatea, Madrilgo Unibertsitate Publikoa eta IMDEA Materialak".

Gasteizkoak kolektiboak irailaren 7an beste informazio bat ere zabaldu zuen, 2016ko azaroaren 14ko Estatuko Aldizkari Ofiziala duena albistearen iturri: EHUK Espainiako Defentsa Ministerioarekin hitzarmena duela segurtasun eta defentsari buruzko jardunaldiak antolatzeko eta garatzeko. Horren emaitza dira Udako Ikastaroetan aurtengo irailean egin zituen jardunaldiak, *Segurtasuna eta defentsa Europar* izenburupean.

EHUK ITP arma enpresarekin eta Espainiako Defentsa Ministerioarekin kolaboratzen duela agertzeaz gain, Gasteizkoak kolektiboak irailaren 7an hau ere jakinarazi zuen, informazio iturri

duena EHUren erabaki organu nagusia den Gobernu Kontseiluaren urtarrileko akta: organu horrek onartu zuela EHUK parte-hartzea Espainiako Plataforma Teknologiko Aeroespazialean. Plataforma honen bederatzi sozioetatik hiru hauek dira: INTA, alegia, Defentsa Ministerioaren erakunde autonomoa I+G+B-rako; TEDAE, Espainiako armagintza sektorearen patronala; eta DGAM, Defentsa Ministerioako Armamentu eta Materialaren Zuzendaritza Orokorra.

Lanpostua sakratua baita...

Bai arma industriarentzat ikertzen da biltzanak eta bai lantegian piezak egiten dituztenak, lehenago edo geroago denek dakite zertarako ari diren, Gasteizkoak kolektiboko kideen esanetan.

BBVA

2.746.121.954,61 €

ARMA ENPRESEN FINANTZAKETAN
2011-2016

€ ARMA ENPRESEI
EMANDAKO KREDITUAK

€ ARMA ENPRESEI JAULKITAKO
BONUAK ETA ZOR-AGIRIAK


€ ARMA ENPRESETAN DITUEN
INBERTSIO-FUNTAS, AKZIO ETA BONUAK



Egilea: Centre Delàs d'Estudis per la Pau, 2016.
Itzulpena: ARGIA



bancaarmada.org



Iturria: Los bancos que invierten en armas. Actualización de la financiación de armamento nuclear, de bombas de dispersión y de las principales industrias militares españolas (2011-2016) txostena.

Jakin orduko lanari uko egin eta enpresa utzi duen kasu gutxi horietakoren bat gogoan dute, "eta gainerako langileek lanaldia bete, soldata ederra etxera eramane eta bere lanaz harro ez egotea erabakitzen dute". *Estas guerras son muy nuestras* liburuan kritika zorrotza egiten diete sindikatuerei ere, bere borroka enpresa militarretako langileen lan baldintzak hobetzera mugatzen dutela iritzita.

Duela 20 urte Araban zegoen Expal enpresarekin izan zuten esperientzia mingotsa kontatu dute: Bakearen lkerketarako Delás Zentrua Gasteizkoak kolektiboarekin harremanetan jarri zen Expal enpresaren konbertsioa lantzeko. Proiektua finantzatzeko prest zegoen Delás, baina Expaleko langileek prozesuan parte hartzea jarri zuen baldintza. Gasteizkoak kolektiboak ere hala behar zuela irizten zion. Langileekin harremanetan jarri, eta ez zuten lortu proiektuan parte hartzerik, 2-3 langile

baino ez baitziren prest agertu. "Zergatik? Konbertsioa eginez gero, langileek zuten soldataren ordean administrazioko langileena eskaintzen zien proiektuak, eta hiru aldiz txikiagoa zen".

Saiakera hark huts egin bazuen ere, irtenbide zentzuzkoena hori dela berretsi dute Gasteizkoak-ekoek: "Enpresa txikiak itxi, langile horientzat beste lanpostu bat bilatu, eta enpresa handienak jarduera zibilerara soilik mugatu". Egingarria dela diote: "Aski dute erakunde publikoek jarduera militarra duten enpresei diru-laguntzak eta era guztietako laguntzak kentzea". Sindikatuak ere borroka esparrua baluketela diote: "Konbenioan objektu laborala eskubide gisa onartzea landu dezakete, hau da, langileek eskubidea izatea enpresaren proiektu zibiletan bakarrik lan egitea erabakitzeko. Horrek eztabaida irekiko luke enpresetan, konbertsio prozesuei atea irekiz".

Bestaldera begiratzearen arazo bakarra

Antimilitarismoa jorratzen du 26 urtez Gasteizkoak kolektiboak, eta armagintzaren arazoa bere sakonean lantzeko, hainbat galdera pausatu dituzte elkarriketan zehar: Gerren aurka egin dezakegun ekarpenik handiena ez ote da armak ekoizteari eta finantzatzeari uztea? Euskal herritarrok gure kontsumo mailari eusten jarraitu dezakegu, beste herrialde batzuei gerren eta armen bidez baliabideak kendu gabe? Gerrarik ez dagoen lekuan bakea dago? Nola deseraiki hain errotuta ditugun jarrera eta balio militaristak?

Gizartean hausnarketa bultzatzeko, "militarismoaren aurpegi ezkontuak argitzeko" unitate didaktikoa prestatu dute, DBHko 2. eta 3. mailatan lantzeko. Ikasturte honetan proban jarriko dute hainbat ikastetxetan, eta hauengandik jasotzen dituzten iradokizunak kontuan

EUSKAL BANKUEK ARMA ENPRESEI BIDERATUTAKO DIRUA (2011-15)

Caja Rural 16.472.208 €
Nori: Indra, Maxam, Oesia

Crédit Agricole 4.634.369 €
Nori: Indra, Navantia, Airbus, Finmeccanica,
Babcock&Wilcox, BAE systems, Thales, Serco,
Boeing, Lockheed Martin, Raytheon, Safran,
Fluor, Larsen & Toubro, Bechtel.

Kutxabank 2.733.850 €
Nori: Indra, Sener

Arma enpresen finantziakzioa gakoa da armak ekoizteko. Espainiako Estatuko arma enpresen zorpetze ratioa batez beste %73 da, gainerako industrien antzerakoa. Honek esan nahi du, lau armatik hiru ez liratekeela egitera iritsiko, arma industria bankuek eta beste erakundeek finantzatzeko ez balute. Herritarrek ziurtatu nahi badu bere dirua ez dela armak egiteko erabilia izango, Banku Etikoak dira hori bermatzen dioten bakarrik.

Iturria: Delàs Zentruaren *Los bancos que intervienen en armas txostena*.

hartuta, hurrengo ikasturtean ikastetxe denon eskura jarriko dute.

Herritarrok jarrai dezakegu gure buruari kontraesanak loratzen dizkiguten galderak egin gabe, begirada al-bora makurtuta. Honek arazo bakarra duela oroitarazi zien BBVAko zuzendariori eta akzionistei Maria de Lluc Bagur-ek, 2017ko martxoaren 17an egin zen BBVAko akzionisten batzarrean, erakunde hauen izenean hitza hartuta: Delàs Zentrua, Setem, Justicia i Pau, Globalizazioko Zorriaren Behategia eta RETS kolektiboa: "Zuen inbertsioek munduan zer sortzen duten ez bazaizue zipitzik axola, jarrai ezazue armagintzaren eta militarizazioaren munduko finantzatzaile handienetakoak izaten. Dudarik gabe, aberatsagoak izango zarete, baina jakin behar duzue zuen arduragabekeriak dakarrela gu guztiok, zuek barne, geroz eta segurtasun gutxiago duen munduan bizi izatea". ■

11itzulpen

EUSKARATIK INGELESERA ZUZEN INGELESETIK EUSKARARA ZUZEN

EUSKARA | CASTELLANO | FRANÇAIS | ENGLISH

Euskal Herrian gehien erabiltzen diren hizkuntzen arteko itzulpenak eta zuzenketak egiten ditu 11itzulpenek. Eskarmentu eta prestakuntza handiko gure itzultzaile eta zuzentzaile taldeak eta gure lan-metodologiak itzulpenen kalitatearik gorena bermatzen dute.

» Testu kalitatea bermatzen dugu

» Lana eskatutako epemugan eta formatuan entregatzen dugu

» Terminologia zehatza eta koherentea ziurtatzen dizugu

www.11itzulpen.eus

info@11itzulpen.eus

Skype: 11itzulpen

☎ (34) 699 433 121

La Naval

Pribatizazioak ontziola eskoratu du azkenean

Sestaoko La Navalek abuztuaren 30ean hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu zuen, bere 220 lanpostuak oso kolokan jarriaz. Langileak ez daude geldirik eta irailaren 21ean manifestazioa egingo dute Ezkerraldean. Izebergaren punta baino ez da, ontziolarentzat lan egiten duten azpikontratetako eta enpresa hornitzaile txikietako ehunka lagun askoz okerrago baitaude. Hondamendia 2006an hasi zela dio zenbaitek, Espainiako Gobernuak La Naval esku pribatuetan utzi zuenean.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

“Jendeak ezin du begira egon”. La Navaleko zuzendaritzako kide batek joan den irailaren 11n egindako bileran botatako esaldi horrek erresumina sortu zuen langileen artean, batek baino gehiagok pentsatuko zuen, “eta zuek nora begira egon zarete orain arte?”. Enpresaren kudeaketa txarrari egozten diote gehienek ontziolaren oraingo egoera larriaren errua.

Egun horretan bertan zuzendaritzak iragarri zuen aldi baterako kontratua duten 50 langile bota eta lantalde finkoa osatzen duten gainerakoei enplegua erregulatzeke espediente irekiko ziela sei hilabeterako. Likidezia falta eta lan kargarik eza argudiatu dute sozietateko arduradunek. La Navalek baditu hainbat ontzi eraikitzeke bere eskaera zorroan, baina jarduera oso eskasa da momentu honetan Sestaoko instalazioetan eta hornikuntza ere geldirik dago, azken urteetan pilatutako zorren eta galeren ondorioz.

Hartzekodunen konkurtsoa edo inbertitzaileen mauka

Despidoaren atarikotzat hartu daiteke erregulazio dosierra zabaltzeko neurria, abuztuaren 30etik hartzekodunen konkurtsoan baitago La Naval. Ajeak ez dira oraingoak ordea, 2014an eskaera krisi larria igaro zuen eta langileak etxera bidali zituen denbora batez lan karga sartu artean. Herbehereetako TESO enpresarentzat ferry bat eraikitzeak salbatuko ei zuen, baina negozio hori eta hurrengoak ez zitzaizkion uste bezain ondo atera. Hala, aurtengo udaberrian hornitzaileei ordaintzeari utzi eta uda hasieran aurre-konkurtsoa aurkeztu zuen. 80 milioi euroko galerak ditu La Navalek, hornitzaileei 50 milioi zor dizkie eta bankuei beste 150.

Dirutza horri aurre egiteko modua izan zitekeen kapital soziala handitzea, eta aukera hori oso zabalik zegoen due-la hilabete batzuk, Manuel del Dago en-



presari asturiarrak esperantza elikatu-ta. Del Dagok 90 urte ditu eta Miamin bizi da, Picos de European artzain izatetik Kolonbian eta AEBetan ontzigile izatera igaro zen eta gaur egun Naviera del Nervión-en jabeetako bat da, La Navalen akzioen %10 duen enpresa. Zenbait hedabidek argitaratu du enpresaria proposamena egitear dela; izan ere, konkurtsoan sartuta, inbertitzaileak zor-raren zama ez luke izango, baina ikusi beharko litzateke nola eragingo liekeen langileei.

Balizko koiuntura horrek, ordea, ez litzuke alboko kalteak eragotziko ingurumarian dabilzan dozenaka hornitzaile-ren artean, La Navalek ez baitie zorretan utzitakoa kitatuko. 40 edo 50 enpresa txiki eta ertain dira euren produkzioaren zati handiena ontziolara bideratzen dutenak, eta azpikontratekin batera 1.600 lagun ingururi ematen die lana. La Naval likidatuko balitz haiei egingo



die kalte handiena, kaleratzeak eta aurrejubilazioak negoziatzeko indar askoz gutxiago baitute. Sestaoko Podemosek enpresontzako erreskate plan bat abian jartzeko eskatu du, kreditu bigunak eskainiz.

Historia pixka bat: 2006ko pribatizazioaren ondorioak

Enpresaren norabidearen erantzukizuna Ingeteam eta Murueta ontziolak dute bizkar gainean, beraiek baitira jabe nagusiak -akzioen %38 bakoitzak-. Langileek hori badakite eta joan den irailaren 8an akziodunek eta enpresa batzordeak egindako bileran garbi utzi zuten: Sestaoko plantaren kanpoaldean bilduta Ingeteam-Murueta errudun leloa zera man pankarta handi bat zabaldu zuten. 2006an erosi zutenetik La Naval "kontrolik gabe" eraman dutela diote.

Ontziola historikoak gorabehera ugari izan ditu 108 urteko bere historian. Eus-

Pribatizazioak babesik gabe utzi ditu langileak, batez ere azpikontratetan dabiltzanak.

ARGAZKI PRESS / ARITZ LOIOLA

kalduna ontziola ezagunarekin batera sektore publikora pasa zen 70eko hamarkadan eta milaka langile biltzen zituzten bien artean. 1984an Euskalduna itxi zutenean La Navalek jarraitu zuen funtzionatzen eta ondoren Izar taldera pasa zen, hau ere estatuen esku -industria partaidetzak kudeatzeko SEPI sozietate publikoarena zen-, harik eta 2004an Zapateroren gobernu sozialistak erabaki zuen arte Izar taldearen arlo militarra mantentzen segi eta gainera -La Naval barne- pribatizatzea.

Egon zen Sestaon gerrarako barkuak egiteko tentaldirik, baina zorionez gaur egun ez du halako zamarik. Hala ere, UGT eta CAT sindikatuek SEPIrekin adostutakoaren arabera, La Navaleko langile finkoek oraindik aukera izango

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



lukete Espainiako ontzigintza militar publikoa barnebiltzen duen Navantia sozietatera joateko –Cartagenan, Cádiz eta El Ferrolen ditu lantegiak–, eta berez egina dute eskaera hori, Sestaoko panorama iluna ikusita.

2006an La Naval geratu zen Construcciones Navales del Norte-ren esku, hainbat enpresa pribatuk osatutako sozietatea. Eusko Jaurlaritzak ez zuen begi onez ikusi operazioa eta ELAk ere gogor kritikatu zuen. Pribatizazioaren aurretik 1.200 behargin aritzen ziren Sestaon eta horren ondotik apenas iristen ziren 400 ingurura. Baina ontzigintzaren arloan esku-lanak pisu handia dauka eta Sestaoko faktoriak ehunka lagun azpikontratatu ditu urteotan eskariak aurrera ateratzeko, baldintza askoz okerragotan ordea.

2009an azpikontrataturiko langileok protesta egin zuten, atzerriko langileen desesperazio egoera baliatuz “konkurrentzia desleiala” bultzatzen ari zirelako –ELAren esanetan astean 60 orduko lanaldi prekarioak egiten ari ziren–. Nolanahi ere sindikatuak garbi utzi zuten “langile guztiak direla jokabide horren biktimak”. Pribatizazioak, beraz, ehunka lagun babesgabetasun egoeran utzi ditu prekarietatearen eta langabeziaren aurrean.

Sestaoko instalazioak, geografikoki oso ondo kokaturiko lurak izanik, espekulazio urbanistikoaren mamua ere zabaldu da.

ARGAZKI PRESS / LUIS JAUREGIALTZO

» La Navaleko langileen lanpostuak baino askoz gehiago dago jokoan: industriagintzaren joera deuseztatzailea agerian utziko luke itxierak

Industria politikarekin zer?

Eusko Jaurlaritzak uko egin dio La Naval salbatzeko diru publikoa jartzeari “ekimen pribatuko” enpresa delako bere esanetan. Langileek gobernu autonomoari gogorarazi diote pribatizazioaren kontra azaldu zela bere garaian eta ontziolaren kontrola hartzeko eskatu diote, berme horrekin finantzabideak aurkituko dituztelakoan. Hain justu, hainbat analista ekonomikorentzat (ikus Juan Mari Arregiren zutabea ARGIAren 2.565 zenbakian) finantzazioak egin du huts; Kutxabank eta an-

tzeko erakundeek jarrerak nabarmendu dute, Eusko Jaurlaritzari “xantaia” egiten ari zaielako ontziolak bankuekin dituen zorrak beregain hartu ditzan.

La Navaleko enpresa batzordeak ez du etsi instituzioen inplikazioa bilatzeko orduan eta mahaia osatu nahi du Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuarekin. Ezkerraldeko alkateekin izan direnean ere hori eskatu diete –Urkulluren exekutiboak osatzen duten EAJ eta PSE alderdikoak dira denak–, baina alde horretatik ez dute erantzun garbirik jaso. Bestalde, Sestaoko Udalak ontziolako lurrak “blindatu” ditzala nahi dute, industriarako izaten segi dezaten; espekulazio urbanistikoaren mamua pribatizazioa hasi zenetik egon da presente geografikoki gozoki bat diren terreno horietan.

Honetan guztian jokoan daude La Navaleko langileen lanpostuak baino askoz gauza gehiago. Ezkerralde osoko tailer eta lantegietan eragina izango luke ekonomiaren traktorea den ontziolaren itxierak. Baina horrez gain, industriagintzak Hego Euskal Herrian hartu duen joera deuseztatzailearen froga bat gehiago litzateke, eta Eusko Jaurlaritzak erabili ohi dituen datu makroekonomiko onen –%3ko hazkunde 2018 arte– azpian beste errealitate bat ezkututzen dela erakutsiko luke. ■



Madrilgo M-30eko mezkita (madridarabe.es).

"EUROPAK DIGU MUSULMANOI GERRA EGITEN"

Fatah Al-Islam muturreko talde islamistarekin "harremana izatea" leporatu zion Libanoko Armadak Haytham Al-Said imanari 2007ko gerran. Jihadismo erradikalaren pentsamoldea ezagutu nahian, berarekin hitz egiteko aukera izan dugu Libanoko Nahr al Bared-eko kanpalekuan. Horrez gain, Bartzelonako atentatuen ostean, Euskal Herriko komunitate islamiarren jardura ezagutzea eta erradikalizazioaren fenomenoaz aztertzea proposatu diogu geure buruari, Ahmed Chaghrouaoui EHUKo irakaslearen laguntzarekin.



Ibai Trebiño
@ibaitrebiño

Islamiar ideologia erradikaleko Fatah Al-Islam (euskaraz, Islamaren Konkista) taldeak Libano iparraldeko Nahr al Bared palestinar errefuxiatuen kanpalekuan izan zuen gotorleku. Irakeko gerrara borrokara zihoazen mundu osoko militante islamistek osatzen zuten taldea eta Siriatic sartzen ziren Irakerara. Hori saihesteko, Siriak mugak ixtea erabaki zuen eta talde jihadistak Libanon "harrapatuta" geratu zen. Fatah Al-Islamek 2007ko maiatzean Libanoko armadari eraso egin zion eta hala, hasiera eman zion 396 hildako eta ehunka zauritu eragin zituen lau hilabeteko gerrari.

Adel Abou Salem, palestinar errefuxiatu eremueta arduradunetako bat da eta ondo ezagutzen du gazteen artean jihadismoak izandako gorakada. Egun, jihadistak gotorlekutzat jotzen den Ain al-Hilweh palestinar errefuxiatu eremuan dihardu lanean. 2007ko gerratik hamar urte pasatu direnean. Fatah Al-Islam, "ehun bat militante izatetik ehunka izatera" pasatu zela eta hori, "kanpalekuko hainbat buruzagi erlijiosok emandako laguntzari esker" izan zela azaldu digu.

Haytham Al-Said imana pertsona ezaguna eta erreferentziala da kanpalekuko gazteentzat eta otoitzetik itzuli berritan, tarte bat eskaini digu 2007ko gudaz hitz egiteko. Libanoko intelentzia zerbitzuek jo-mugan jarri zuten, kanpalekuko gazteen erradikalizazioan imanek izandako arduragatik, taldearen buruzagi espiritualak izateagatik. Berak baina, gerran "haien burua babestera" mugatu zirela dio. Abu Salemek, ordea, dio imanek "Fatah Al-Islam babesteko deia" egin zuela, "anaia islamiarrak zirelakoan". Horrela, kanpalekuko ehunka gaztek *islam garbiaren* alde borrokatu eta bizitza galdu zuten gatazkan.

Islam garbia. Hori da Al-Said eta bere sokakoek defendatzen dutena. "Inork ez du gure erlijioa aldarazteko eskubidea, ez dugu hori onartuko" dio imanek. Europar eta Sirian, "islamismoaren ideiak usteldu" direla uste du imanek eta hori "gizateria aldatzeko saiakera batengatik" dela. "Europako kristauak musulmanak hil edo kanporatu ondoren, orain guri gerra egitera datoz hona", dio haserre. Bereziki Espainiako egoerak sortzen dio kezka imanari, izan ere "meskitak turismo gune bilakatu dituzte" eta hori noski, "irain handia da".



Haytham Al-Said imana.

» AHMED CHAGHOUAOUI: "Saudi Arabiaren helburua diskurtso erreakzionario eta erradikala esportatzea da, nora eta herrialde 'kristau desleialak'"

Islamismo erradikalaren pentsamoldearen arabera, "dogma erlijiosoa aldatu nahi dutenen aurka borrokatu behar da", azaltu digu Al-Said imanek. Bere ustez "musulmanek Daesh-en beharrik ez duten arren, gure buruari galdetu beharko genioke zergatik sortu diren horrelako taldeak".

Erradikalizazio prozesua

Sorreratik, islamak -beste erlijioek bezala- aldaketa ugari izan ditu maila askotan. Ahmed Chaghhouaoui EHUKo irakaslea da eta islamaren historian aditua. Bere ustez, jihadismoaren gorakada azaltzeko, erlijioak emandako atzerapausoa aztertu behar da. Horrela, egun "botere politikoa ardatz duen erlijiozaletasunera" itzuli garela uste du, eta batzuek "erlijiozaletasun faltsu horri eusten diotela itxaropen bakarra izango balitz bezala".

Bartzelonako atentatuaren ostean, Europar bizi den komunitate islamiarra jomugan da, bereziki meskiten jardue-

ra. Are gehiago Al-Said edo Kataluniako Ripollekoa bezalako imanek gazte erasotzaileen erradikalizazioan izandako rola ikusita. Erradikalizazioa ez dela prozesu konplikatu dio Chaghhouaouik, "diskurtso biolentoak beti izango du arrakasta gazteen artean, bereziki ezagutza maila txikia duten gazteen artean". Chaghhouaouiren ustez, erradikalizazio prozesuan "jokoan dagoena ez da praktika erlijioso bat, hizkera baizik" eta Mendebaldeko gizarteetan bizi diren hainbat musulmanen artean, "paradisua" edota "desleiala" terminoen erabilera zorritzarekin ohiko bilakatzen ari dira.

"Termino hauek ez dute lekurik gizarte akonfesionalean" dio eta zentzu horretan lan egin behar dela uste du: "Eskubide osoko hiritar bat zaren heinean, zer axola dio beste guztiak?".

Heziketa erlijiosoa tenpluetan has-tenez, buruzagi espiritualaren lana "funtsezkoa" dela uste du Chaghhouaouik, "bereziki alfabetatu gabeko gizarteetan, imana gida espiritualak eta lege islamiarraren ezagutzaile nagusia baita". Euskal Herria eta Europaren kasuan gainera, imanen sermoiak "tokiko kulturaren baloreak transmititzeko" balio beharko lukeela uste du: "Kasu batzuetan, tokiko kulturaren eta imanek esaten duenaren arteko kontraesanak sortzen dira eta horrek egoera deserosoak ekarri ditu, besteak beste, delitua egiteko deiak".

"Beharrezkoak ez direlakoan", Europar imanek egotearen kontra dago

Chaghhouaoui. Halere, egungo imanek formakuntza akademikoa eduki behar-ko luketela uste du, baita tokiko hizkuntza menperatu eta kultura ezagutu ere". "Ezezagutza hori da arazo nagusia. Euskal Herrian adibidez, ez da imana izateko inolako baldintzarik bete behar", azpimarratu du.

Orohar, jatorri arabiarra edota musulmana duen populazioak gorakada handia izan du Euskal Herrian eta fededun berri horien beharrak asetzeko asmoarekin, hamaika meskita edota gune erlijioso zabaldu dira zazpi herrialdeetan. Chaghhouaoui azaldu duenez, meskita horiek erlijio-funtzioa baino, "funtzio soziala dute", izan ere "sozializatzeko aukera" eskaintzen die heldu berriei, hona etorri aurretik "sinestunak ez baziren ere".

Erlijio-praktikari dagokionez, hemengo meskiten jarduerak "jatorrizko herrialdearen erlijio-praktikaren arabera dira", azaldu digu Chaghhouaoui. Hau da, eskualdeka edo herrialdeka antolatzen dira. "Adibidez -dio adituak-, Bilbo inguruko meskita zehatz batzuetan Maroko iparraldeko zonalde zehatz batzuetako fededunak biltzen dira, ez besterik".

Askotariko erlijio-praktika erregionalak fededunen arteko zatiketa eragin dute kasu batzuetan. Arrasate izan daiteke horren ispilu. Magrebeko arabiarrek eta pakistandarrek, esaterako, meskita bana eraiki dute herri zerraje-roan. Arabiarrena izan zen lehena atek zabaltzen eta bi komunitateetako ki-deak biltzen zituen hastapenetan. Haie-tariko bat da Jaffar pakistandarra eta azaldu digunez, han hitz egiten zuten arabiar dialektoa ulertzeko zailtasuna-ren aurrean meskitara joateari utzi zion. Ez hori bakarrik, egun batetik bestera, giroa kutsatzen hasi zela dio, gauza sus-

magarriak ikusten hasi zela. Besteak beste, "kanpotik etorritako iman batzuen hiru edo lau eguneko egonaldiak". Litekeena da Madrilgo Kultura Islamiarren Guneak -Espainiako meskitarik handiena, M-30eko meskita gisa ezaguna- bidalitako imanak izatea.

Arrasateko komunitate musulmanaren jarduerak baina, "ez du inolako susmorik piztu", Ertzaintzaren iritziz. Horrela baieztatu du meskita berriaren inaugurazioan gonbidatu gisa parte hartu zuen Polizia autonomikoko kide batek. Bertako aktibitatea "normala eta gardena" dela dio, baino ondoren jakin izan dugunez, inaugurazioaren argazkiak eskatu zizkion Ertzaintzak herriko kazetari bati, "parte-hartzaileen artean pertsona susmagarriak izan zitezkelakoan", Bilbotik etorritako iman batzuk, alegia.

Dogma erradikalaren zabalpena herrialde "kristau desleialtan"

Wahabismoa, Saudi Arabiako Erresumaren dogma erlijioso, XVIII. mende bukaeran "erlijioaren erreforma kontserbadore" gisa jaio zen, baina XX. mendetik aurrera izan du gorakadarik handiena, Chaghhouaoui irakasleak azaldu digunez, eta paradoxikoki "Mendebaldeko potentzien laguntzarekin".

"Saudiarabiarren helburua, erlijioaren praktika mundu osoan sustatzea eta musulmanen artean hegemonia erlijio-soziala lortzea da", dio Chaghhouaoui. Horregatik, Al Qaeda lotuta dagoen Fatah Al-Islam bezalako taldeek "erlijio-erreferente" gisa hartzen dute Saudi Arabia, Haytham Al-Said imanek berak aitortu digunez, "salafismoa eta 'islam garbia' defendatzen duen herrialdea delako".

1960ko hamarkadan, petrolio erre-serben agerpenarekin batera, waha-

bismoa mundura hedatzen ahalegindu zen Riadeko erregimena. Mendebaldeko hainbat herrialderekin sinatutako akordioei esker egiten da zabalpen hori. Adibide bezala, Belgikako monarkiak meskita bat eraikitzeke eremua eman zion Saudi Arabiari "petrolio truke", dio Chaghhouaoui. Horrela jaio zen Bruselako meskita erraldoia.

Bide berdinari ekin zion Espainiako erregimenak 90. hamarkadan eta Saudi Arabiarekin sinatutako akordioek Espainiako lehen meskitaren irekiera ahalbidetu zuten: Madrilgo M-30ekoa. "Nabarmendu behar da, tenpluaren eraikitze-lanez aparte, Saudi Arabiako doktrinaren hezitutako imanaren parte-hartzea ere akordioaren parte dela, Saudi Arabiaren helburua diskurtso erre-akzionario eta erradikala esportatzea baita, nora eta herrialde 'kristau desleial' batera", dio adituak.

Urte luzez, Saudi Arabiak Madrilera eraikitako M-30eko meskitan "inolako kontrolik ez dela izan" argitu digu Chaghhouaoui, "2004ko martxoaren 11 arte". "Pentsa zenbat urte eman duen Saudi Arabiak bere diskurtso erradikala zabaltzen".

Saudi Arabiaren kutsurik ez dago momentuz Euskal Herriko meskitetan, izan ere tenpluen finantzazioaren zatirik handiena "fededunek jarritako dirua" dela azaldu digu Chaghhouaoui. Halere, Pakistango Tabligh mugimendua edota Marokoko hainbat mugimendu islamista, Euskal Herriko meskita batzuen finantzazioaren atzean daudela ohartarazten du: "Dirua lortu ezean, Europako arduradunek Arabia Saudi edo beste herrialde erradikal batzuetara jotzen dute finantzazio bila. Hor dago, hain zuzen ere, erradikalizazioaren arriskua". ■

 **ARGIA**

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen

Arabako Alea aldizkaria eta Hala Bedi irratia

“LEHEN PATATERO DEITZEN ZIGUTEN MESPRETUXUZ, ORAIN HARRO ESATEN DUGU”

Aurtengo ARGIA Egunak Gasteizen lur hartuko du urriaren 7an. Hiriburu batean egiten dugun lehen aldia da. Eta ez da kasualitatea Arabakoa aukeratu izana. Ezer gertatzen ez den 8. lurrealde erdalduneari. Hori diote aurreiritzi zaharrek. Eta, ohi bezala, egia ezkutatzeko besterik ez dute balio. Arabako gure konplizeek ondo baino hobeto dakite hori. Igor Goikolea eta Maialen Kortabarria (Hala Bedi) eta Aritz Martinez de Lunarekin (*Alea*) hitz egin dugu.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Axier Lopez

@axierL

Zergatik dute hain presentzia txikia komunikabideetan Arabak eta Gasteiz?

Aritz Martinez de Luna: Arabaz kanpoko hedabide gehienek ez dute presentziarik hemen, bertako jarraipena egitea zaila egiten zaie. Oihartzun handiko gaiak egiten diete kasu edo bestela –guk erre-dakzioan sarri erabiltzen dugun txantxa– “eduki exotikoak” direnean: Trebiñu, Errioxa, euskara eta ez dakit zelangoz az-tarnak nahastuta. Egunerokotasunean gertatzen zaigunak, orohar, oihartzun txikia izaten du hemendik kanpora.

Igor Goikolea: Gehienbat Gasteizen zentratzen dira eta hemen dauzkaten baliabide gutxi horiek Legebiltzarrerara bideratzen dituzte. Araban Euskal Herriko biztanleriaren %10 bizi da eta arabarren %80a Gasteizen dago. Hori ez da gainerako herrialdeetan gertatzen.

Maialen Kortabarria: Araba eta Gasteiz ahaztuak izan dira Euskal Herrian, batez ere herri mugimenduaren ikuspegitik. Orain dela urte batzuetatik hona Araba eta Gasteiz bizi-bizi daude. Halere, he-

dabide asko oraindik ez dira moldatu egungo egoerara. Hemen gertatzen diren gauza interesgarriak askotan hemen geratzen dira.

I. Goikolea: Hori aldatzen ari da. Hemen-go kontuak kanpora sarriago ateratzen ari dira eta, apaltasun osoz, horretan zeri-kusi handia izan dute *Aleak* eta Hala Bedi. Lehen agenda erabat markatzen zutenak beste batzuk ziren. Euskal Herriko beste hedabide batzuekin dugun elkarlanak, adibidez zuekin, ARGIArekin, asko lagundu du horretan. Modu formal eta informalean dugun hartu-eman oso positiboa izan da, eta aztertzekoa.

Zer itxura hartzen diozue panorama komunikatiboari?

I. Goikolea: 300.000 biztanle izanda, Araban oso proiektu komunikatibo interesgarriak daude. *Alea* eta Hala Bedi z gain, adibidez, askotan oso urrun gertatzen zaigun Aiaraldea eskualdean oso proiektu potentia daukate. Hala Bedi, *Alea*, Aiaraldea eta abar, hein handi ba-

tean asmatzen ari gara: etengabe egoera berrietara moldatzeko gaitasuna erakutsi, tresna berriei esperimendatu, internet eta sare sozialetan indarra jarri, edukiak kanpora atera...

A. Martinez de Luna: Hedabide handi-agoek egitura zurrinagoak dauzkate, aldatzea gehiago kostatzen zaie. Araban tradizionalak diren prentsa idatzizko hedabideek, *El Correo*, Diario de *Noticias de Alava* eta enparauek, duela 10 edo 20 urteko planteamendu eta formatu bera dute. Gu, gure gabezia guztiekin, aukera berriei probetxua ateratzeko prestuagoak gara.

I. Goikolea: Hori posible izan da ausartak garelako. *Alea* sortu da ausartak izan zaretelako. Txikiak izanda, errazago egiten dira aldaketak. Nahi dugu, posible da, egin dezagun. Kito.

Zeintzuk izan dira Hala Bedi eta Alearen ekarpenik handienak?

A. Martinez de Luna: Behar bati erantzuna eman diogu *Alearekin*: Arabako



informazioa Arabarentzat euskaraz eta arabarrek eginda. GEU euskara elkarretik sortutako proiektua da eta GEUK 25 urte daramatza euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzen. Beraz, gure helburua ere horixe da.

I. Goikolea: Hala Bedi 35 urte beteko ditu 2018an. Sortu zenean artean jaio gabe ginen, baina ordutik hona gauza bat ez da aldatu: belaunaldi askorentzat Hala Bedi izan da esperimintatzeko lekua, askatasun txoko bat. Nahi zutena nahi zuten unean egin eta esateko tokia. Eta gainera, hitza zabaltzeaz gain, eragile askori komunikazioan trebatzeko aukera eman die. Jende ezberdina elkartzeko eta ezagutzeko balio izan du irriatiak.

M. Kortabarria: Hala Bedi uhinetan soilik egotetik, sarean, bideoetan eta sare sozialetan ere badagoen komunikabide bilakatzeko prozesua bizi izan dugu guk. Ahotsik ez daukaten eragile, kolektibo eta mugimenduei ahotsa ematen jarraitu dugu, baina orain bide gehiagotatik.

Erlantz Anda (Alea), Maialen Kortabarria (Hala Bedi), Aritz Martinez de Luna (Alea) eta Igor Goikolea (Hala Bedi).

Lehen irratian ez zegoen unean uneko jarraipena eta orain hori ere egiteko moduan gaude. Salto horrek ekarpen handia egin dio herri mugimenduari.

Mugimendu asko eta akotarikoak dituen hiri bizia ematen du Gasteizek. Hala bizi al duzue barrutik?

A. Martinez de Luna: Bai, eta igartzen da. Beti esan izan da Gasteiz burges txikien hiriburua zela eta ez zela ezer gertatzen. Lotsa gainetik kentzen joan gara eta pixkanaka mugimendu gehiago agertu dira. Lehen patatero deitzen ziguten mespretxuz. Egun nik neuk esaten dut patateroa naizela, harro.

I. Goikolea: Beste leku askotan elkar ikusi ezin zuten taldeak hemen ondo konpondu izanak lagundu du. Oso erreza da Gasteizen ideologia ezberdinetako

pertsonak elkartzea (Gora Gasteiz, Hala Bedi, gaztetxea...).

A. Martinez de Luna: Mugimendu sozialen pizgarri nagusia jende gaztea izaten da eta Gasteizen eragin handia izan du unibertsitateak. Euskal Herri osoko jendea etortzen da gurera ikastera eta horrek aipatutako aniztasuna areagotu du. Kike Amonarrizek dioenez, Gasteiz izango da etorkizuneko euskalki baten sorgunea, hemen biltzen delako jende popourri bat.

M. Kortabarria: Gasteiz bizirik dago. Arabarrok ahalduntze prozesu bat eduku dugu. Guk, euskalkirik gabe euskaraz hitz egiten dugu eta horregatik ez gara beste inor baino gutxiago. Konplexu horiek gainetik kentzen ari gara arabar guztiok.

I. Goikolea: Ahaldundu gara, gauza berriak sortzeko. Oso erraz sortzen dira taldeak. Txikitik, bertakotik abiatzeko joera dugu. "Goitik" edo "handiek" esango dutenaren zain egon gabe, beharra ikusten bada, elkartu eta kito. Eta askotan

instituzioez paso eginda. Errekaleorreko ekainaren 3ko manifestazioa horren isla izan daiteke, herri mugimendu osoak instituzioei esan zien “gu ere bagara nor, guk ere egunero egiten dugu lan”.

Javier Marotoren lau urte luzeen ostean, agintaldi honetan aldaketa gertatu da Udalean.

A. Martinez de Luna: 2015eko urtarrean sortu zen *Alea* eta aldaketa ekainean izan zen. Tarte txiki horretan PPrekin ez genuen harreman txarrik. Esango nuke beren politika zelako “hauei emaezu eskatzen dutena eta hala bakean utziko gaituzte”. Gobernu berriarekin hartu-eman estuagoa da. Elkartzeko arazo gutxiago dago.

Aldaketa hori beharrezkoa zen. PPK Gobernuan jarraitu izan balu, Maroto beste 20 urtez geratzea zen arriskua. Horrelako kasuetan, alderdia baino pertsona bilakatzen da botoak jasotzen dituen. Alde horretatik, aldaketa ez da ideala, baina positiboa da.

Lehen aipatutako herri mugimenduen pizkunda aurreko gobernuaren jarraitarekin oso lotuta dago. Hori da PPK Gasteizi egindako ekarpena.

Marotok ez du inoiz Hala Bedin hitz egin eta Urارانek gaztetan saio bat izan zuen Hala Bedin urtebetez.

M. Kortabarria: Hala da, baina alkatea denetik ez zaio irratia asko gustatzen. Errekaleorren harira, argi geratu da.

I. Goikolea: Hirutan edo hitz egin izan du irratian alkatea denetik, baita gobernuko beste kide batzuek ere. Halere, nik ez dut aldaketa handirik sumatu.

Aldaketa nabarmenik izan bada, euskararen arloan izan da. Egun, Donostiaren ostean, Gasteiz da Euskal Herriko hiribururik euskaldunena, erabilerari dagokionez.

A. Martinez de Luna: Jendea esaten diozunean, ez du sinesten. Umea nintzela, euskaraz baten bat entzutean buelta ematen nuen begiratzera ea zein zen, harrituta. Egun, aldiz, edozein tokitan entzun dezakezu jendea euskaraz.

M. Kortabarria: Nabari da gure hartzaileak gero eta euskaldunagoak direla. Euskarazko saioak gero eta ezagunagoak dira. *Suelta la Olla* erdarazko magazineak nagusi izaten jarraitzen du, baina *Araba Hizpide* euskarazko magazinea gero eta indar handiagoa hartzen ari da.

I. Goikolea: Irratia sortu zenean erdara hutsean zen, eta egun Hala Bediko saioen erdia euskaraz da. Irrati barruan ere, gero eta euskara gehiago entzuten da. Euskaraz eta gaztelaniaz gain, arabieraz, ingelesez eta galegoz ere saioak dauzkagu.

M. Kortabarria: Gasteizko euskalduntze prozesuaren erakusgarri da Hala Bedi Bi. Euskara hutsezko irratia bat behar zen Araban. Oso apustu ausarta izan zen. Hala Bedi Bi ez da lehen katearen mailara heldu, baina, hala jarraituz gero, noizbait irits daiteke. Kontua da Hala Bedi Bateko programazioaren zati garrantzitsua euskaraz denez, euskaldunek ez dute zertan Hala Bedi Bira jo euskara entzuteko. Iritzi ezberdinak daude bi kateen arteko harremanari buruz.

» “Arabarrok ahaldundu gara, gauza berriak sortzeko. Oso erraz sortzen dira taldeak. Txikitik, bertakotik abiatzeko joera dugu”

» Herri mugimenduen pizkunda Marotoren gobernuaren jarraitarekin oso lotuta dago. Hori da PPK Gasteizi egindako ekarpena”

Tokiko komunikabide askotan agenda eta kirol kontuak dira nagusi, iritziz eta balorez askotarikoa den euskal komunitatean frikziorik ez pizteko. *Alean*, zorioenez, ez du ematen hala gertatu zaizuenik.

A. Martinez de Luna: Bai, tipologia askotariko irakurle eta harpideak ditugu eta, beraz, badakigu batzuetan gure edukiak ez direla denen gustukoak izango. Eta normala da. Ahalik eta komunikabide irekiena izateko egiten dugu lan. Ez gara inorekin ezkonduko eta saiatzen gara, ahal den guztietan, denei ahotsa ematen.

Guretzat errazena litzateke kirol arloko gaiak lantzea, denak goaz Alavesekin eta Baskoniarekin, eta guztiak poz-
-poz. Bada, hain justu, horiei buruz urtean laupabost albiste argitaratu ditugu. Kirola beste ertz batzuetatik landu dugu: inklusibitatea, parekidetasuna eta abar. Ez dugu bilatzen denon gustukoa izango den gaia. Hori ez da interesgarria eta, kazetaritza ikuspuntutik ere, luzera begira ez da emankorra.

I. Goikolea: Guri ere alde bateko eta besteko kritikak heltzen zaizkigu. Baina zeozer ondo egiten ari gara; eragile eta pertsona gehienek *Alean* edo Hala Bedin agertzeko interesa eta prestutasuna adierazten dituztelako.

Zeintzuk dira zuen erronka nagusiak?

A. Martinez de Luna: Ezin gara konformatu proiektua martxan jartzearekin eta ekonomikoki bideragarria izatearekin. Hori bada planteamendua, hemendik bost urtera akabo. Hazten jarraitu, konplexuak gainetik kendu eta ahalik eta irakurle gehienengana iritsi behar dugu erreferentia izateko.

I. Goikolea: Hazi behar dugu gure burua etengabe moldatuz, gauza berriak sortuz. Prozesu bat abiatu dugu. Bost eztabaidagai dauzka: Hala Bedi Bat, Hala Bedi Bi, multimedia, funtzionamendua eta barne mailako prozesu feminista.

M. Kortabarria: Bi erronka nagusi ikusten ditut. Batetik, epe motzean, bideratzen ari garen prozesua ahalik eta parte-hartzaileena izatea, Hala Bedi birdefinitu eta indartsuago ateratzeko. Bestetik, Gasteizko mugimendu zabal hori komunikatiboki ahalduntzen lagundu beharko genuke. Mugimendu askok eta askok dependentzia handia dute, gabezia komunikatiboak dituztelako. Hala Bedi eta *Alea* lagundu dezakegu eta horregatik, adibidez, antolatutako ditugu irailean Izan Media tailerrak.

I. Goikolea: Herri mugimenduen agenda lehen lerrora ekartzen lagundu behar dugu, denon eragiteko gaitasuna handitzeko.

A. Martinez de Luna: Oso eskertzekoa da hedabideen artean dugun lankidetzeta, Hala Bediarekin eta tokiko zenbait hedabidarekin. Gure artean ez dago lehiarik. Edukia ahalik eta gehien zabal dadin egiten dugu lan, hori nork egiten duen bigarren mailakoa da. Denon mesedera-
ko da eta. ■

PEPSIREN ITSAS ARMADA SOBIETARRA



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Mosku, 1959ko uztaila. New Yorken SESBri buruzko erakusketa bat pres-tatu eta hilabete batzuetara, Sobietar Batasuneko hiriburuan AEBetako Erakusketa Nazionala antolatu zuten, Gerra Hotza pixka bat epeldu nahian. Erakusketako standak bisitatzen ari zela be-roaldia jasan behar izan zuena Nikita Khrustxev Alderdi Komunistako lehen idazkaria izan zen, beharbada Mosku-ko udako tenperaturengatik ala, agian, AEBetako presidenteorde eta erakusketako gidari Richard Nixonen ohiko hitz-jario astunaren erruz. Kontua da Khrustxev izerdi patsetan iritsi zela Pepsiren stand parera, eta Donald Kendall freskagarri enpresako marketing presidenteordeak aukera ez zuela alferri-rik galdu. Edalontzia bete Pepsi hartu eta sobietar buruzagiari eskaini zion. *Time* aldizkariaren arabera, sobietarrak hurrupa "eszeptikoa" eman zion freskagarriari. Hortxe hasi zen Pepsiren eta sobietarren arteko idilioa.

Donald Kendall 1963an izendatu zuten Pepsiko presidente (eta Nixon 1969an AEBetako). Moskuko elkarretaratze hartatik aurrera asmo bat zebilkion bu-ruan Kendall: Pepsi SESBen salduko zen lehen produktu atzerriarraz izatea (eta, ahal izanez gero, bakarra). Urte luzez ne-goziatu ondoren, 1972an akordioa si-natu zuen sobietarrekin. Baina errubloa nazioarteko merkatuan trukatu ezin zite-



Nikita Khrustxev lehenengoz Pepsi edaten, Moskun, 1959ko udan, Richard Nixon (orduan AEBetako presidenteorde) adi-adi begira duela.

keenez, nola ordainduko zituzten sobie-tarrek freskagarri kapitalistak? *Counter-trade* edo konpentsazio merkataritzaren bidez, beste edari batekin egingo zuten trukea. Pepsi Stolichnaya vodkaren in-portatzaile eskusiboa izango zen AEBe-tako merkatuan. Eta handik bi urtera Sobietar Batasuneko Pepsiren lehen fa-brika abiarazi zuten Novorossiysken.

1980ko hamarkadan harreman bere-zia krisian sartu zen. 1980an Olinpiar Jokoak Moskun egin ziren, eta haien us-tiatze-eskubideak Coca-Colarenak ziren 1924tik. Gainera, 1985eko urtarillaren 23an sobietar agintariek Pepsiren lehia-kide nagusia merkaturatzeko baimena eman zuten, turistei saltzeko besterik ez izan arren.

Promiskuitate kontsumitzailea saihe-s-tu nahian, Kendall sobietarrekin bildu zen eta beste akordio bat sinatu zuen 1989an: Pepsik hamazazpi gerra-urpe-

kari, gurutzaontzi bat, fragata bat eta destruktore bat jaso zituen. Hala, SESBek itsas armada zaharkitua garbitu zuen eta Pepsi munduko seigarren potentzia mi-litarra bihurtu zen, urpekari kopuruari zegokionez. Diotenez, Donald Kendallek hau esan zion Bush aitaren segurtasun kontseilari Brent Scowcroft-i: "Sobietar Batasuna zuek baino bizkorrago arma-gabetzen ari gara". Egoera hark, jakina, egun gutxi batzuk besterik ez zuen iraun, ontziak txatarra birziklatzen zuen sue-diar enpresa bati saldu baitzizkioten.

Azkenean, Perestroikak hautsi zuen bikotea 1990eko hamarkadaren hasie-ran, eta egun Coca-Colak gaina hartua dio Pepsiri Sobietar Batasun ohiaren merkatuetan. ■



BERNAKO ARKEOLOGIA ZERBITZUA

4.000 urteko tupperwarea Alpeetan

Duela bost urte egurrezko ontzi biri-bil bat aurkitu zuten Suitzako Alpeetan, Lötschenpass gainetik gertu, 2.650 metro-ko altitudetan. Objektua aztertu ondoren, emaitzak *Scientific Reports* aldizkarian ja-kinarazi berri dituzte. Ontziak 4.000 urte ditu; Brontze Aro hasierakoa da, beraz. Horrek ez du esan nahi gizakiak goi-men-di haietan bizi zirenik, batetik bestera

joateko zeharkatzen zituztela baizik, eta bidean elikatzeko janaria eramaten zute-la. Baina daturik interesgarriena barruan aurkitutako gari arrastoak dira. Brontze Aroko aztarnategietan maiz aurkitu dira zereal arrastoak; ez ordea ontzien ba-rruan. Hogei zentimetroko ontzixoa Eu-rasiako nekazaritzaren hastapenen berri izateko funtsezkoa izan daiteke. ■

Barrikakada urte



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Jende askoren galdera da urteen poderioz zergatik edari batzuk aldatzen diren eta beste batzuk ez. Erantzuna motza eta zehatza da, baina bide luzeak ireki eta era askotara loratzen diren barrena gozatzeko aukera ematen du. Erantzuna motzean: hartzitzen diren edariak etengabe aldatzen joango dira (sagardo, ardo...), garapen horretan ondu, hobetu, mindu, ozpindu... Denetik gerta daiteke. Hartzitu orde, egosi eta irakinarazitako edarietan (destilatuak, patxarana...) behin botilaratuz gero ez dira gehiago aldatuko.

Eta edari horietako bati segika, bide luze horietako bat dugu gaurko hau: Rhin ibai aldera joko dugu. Ibai horren gune historikoenetako batean dago, bertakoen hizkuntzan Strossburi, guretzat Estrasburgo dena. Hango ospitale edo eritegi nagusiaren gunera goaz. Bertan, administrazio eraikin baten bazter batean ezkutu samarrean dagoen eskailera irten baten hegaletik ate bikoitz batera iritsiko gara. Ate horren atzean dagoen katakonba antzeko harpeko sotora sartu eta begiak ohitzean aurkituko duguna historikoa da.

Upategi bat da, 1395ean eraikia, eta bai, gudaz guda, gaur arte zutik iraun du. Upel izugarriak daude han, XVIII. eta



JONATHAN M-CC BY SA

XIX. mendekoak gehienak, 1881ekoa da 26.080 litroko bat, baita 1727ko dolare ikusgarri bat ere. Hantxe dago inon ezagutzen den zurezko barrikan dagoen ardo zaharrena: burdin hesi baten atzean, 1472 dioen 450 litroko barrika. Barrika hori beteta dago, orduan beteta, hau da 545 urteko ardo du. Denboraren poderioz ontzen bada ardo, hau gutizia ederra izango da. Ardo zuria da, lurralde haietan, preziatuena. Itxuraz, hirutan besterik ez dute dastatu izan hango elixir hori: 1576an, 1716an eta 1944an, Bigarren Mundu Gerran hiria askatu zutenean.

Upategian museo ttiki bat jarri dute, baita ardo saltzen ere, esan didatenez

1395ean eraiki zuten Estrasburgoko erietxean dagoen upategia.

moduz eta ona. Ardogile alsaziar jakin batzuek bere ardoa upategi horretan ontzeko baimena dute, eta ardo hori da saltzen dutena; haiek ere diote munduko onena dela... 150.000 botila dauzkate, eta eskuratzen duten dirua ospitalearen beharretara bideratzen da.

Bertaratzeko bidea zaila omen da. Galdetuz iritsiko naiz neu ere egunen batean, eta urteko ardo edanez 545 urteko barrikari begira bekaizkeriak erreko nau. ■

Argazkia: Foto Mena

Baztanen nekazaritza herrikoi eta iraunkorra



Baztango Udala
www.baztan.eus



USURBILGO ALKARTASUNA KOOPERATIBA

USURBILGO ALKARTASUNA KOOPERATIBA

Mende bat lurra lantzen dutenen zerbitzura



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba Elkartaren helburua Usurbilgo eta inguruko baserritar txikia laguntzea da, behar ditzakeen zerbitzu eta eskaintzak sortu eta indartuz”. Elkartaren webguneko aurkezpena da hori, Asier Kortadi elkarteko kudeatzaileak horrela eguneratu duena: “Azken urteetan elkarteko bazkideen profila dezente aldatu da, baserritik bizi den jende kopuruak behera egin baitu, eta orain baserritarrak ez ezik baratzea edo lorategia duen herritar asko dira bazkide”.

Mende bete baino gehiago martxan

1908an sortu zuten Usurbilgo Alkartasuna Kooperatiba elkartea, baserritarrek eskuratzeko zailtasunak zituzten lehengaiak lortzeko asmoz. “Duela 25 urte inguru aldaketak

egon ziren kooperatiban: baserritarrentzako eskaintza handitu (elikadura, burdindegia, arropak, sagardogintza materiala...) eta bilategiaz gain dendari indarra eman genion”, azaldu du Kortadik. Zabalitze horri jarraipena emanez, egoitza Atalluko industrialdera mugitzearekin batera 24 ordutan irekia dagoen gasolio-hornigailua jarri zuten martxan.

Baina Alkartasunaren lana ez da lehen-gaien eskaintzara mugatzen. Urte osoan lurrrari lotutako hainbat ikastaro antolatzen ditu: erlezaintza, garagardogintza, mahasti-zaintza, kiwi ekoizpena, nekazaritza biodinamikoa, sendabelarrak...

“Sagarrondotik sagardora” ikastaroa

Ikastaroen artean ohiko bihurtu da *Saga-*

rrondotik sagardora: “Ikastaro horrek baditu 10 urte. Urtero taldetxoa sortu ohi da sagarrondoak noiz eta nola ongarritu eta tratamenduen, gaixotasunen, kimaketen eta txertaketen gainean ikasteko, guztiari ikuspegi biodinamikoa gehituz”, dio Kortadik. Sagarren heldutasuna igartzen eta sagardoa nola egin ere ikasten dute parte-hartzaileek, gai bakoitza jorratzeko “punta-puntako adituen laguntzarekin”. Aurtengo otsailan hasitako saioei irailaren 9an eman diote amaiera: sagardogintzaren inguruko zortzi saio egin dituzte guztira. Pozik agertu dira antolatzaileak berriz ere jaso duten erantzunarekin: “Harrera oso ona izan du ikastaroak”. Jarraituko du sagardoak Usurbilgo protagonista izaten... ■



Goizper Group

Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago berrikuntzak egiten eta ingurumenarekin konprometituta.



Industrial



Inbuntadura



Bioteknologia



GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

BOR BOR (K) SISTEMATIZAZIOA

4

Bor Bor (K), Herri jakintzen laborategian

Bor Bor (K) Joxemi Zumalabe Fundazioak, azken urteotan Euskal Herrian zehar prozesu parte hartzaile ugaritan bide-lagun eta laguntzaile gisa egindako bidean, pauso bat aurrera egin eta herri mugimenduetatik eta herri mugimenduentzat formazio politikorako egitasmo bat sortzearen ideia garatu zuen duela urte pare bat. Ilusio eta zalantza handiekin, urtebeteko eztabaida, jardunaldi eta bilera mordoxka baten ostean, Bor Bor (K) Herri Jakintzen Laborategia izeneko proiektua sortu zen. Proposamen honen ikastaroaren lehen esperientzia, 2015eko iraila eta 2016ko ekainean burututako prozesuan gorpuztu zen. Taldeak prozesuan zehar bildutako ondorio eta ikaspen orokorrak aurkituko dituzue ondorengo liburuxkan. Ikastaroan zehar bildutako ikaspenez gain, Bor Bor (K) herri jakintzen laborategiaren inguruko informazioa ere aurkitu dezakezue (metodologia, formatua, gaitegia, prozesua...).



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA

Ametzagaina kalea 19, 20012 Donostia (Gipuzkoa)
(+34) 686 72 88 43 / (+34) 685 750 164
harremanak@joxemizumalabe.eus

#herri mugimenduak
#formazioa
#sistematizazioa

Iraileko sariak

1



Tribial Feminista
2 mahai-joko

2



Txakur Gorria
2 liburu

3



Zein da Zein?
Elefante Txuria diskoa
5 CD

4



Joxemi Zumalabe
3 liburu

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

Jakoba Errekondoren gida-liburu berria kaleratu du ARGIAk



Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre

Landareak zaintzeko garai bakoitzean zer lan egin behar den eta nola, xehe azaltzen du *Landareak lantzen* gida-liburuan Jakoba Errekondok. Antton Olariagaren iruditegiak jantzia dago. 2018an gure denbora plazerez eta ganoraz antolatzeke tresna da aldi berean liburu eta aldi berean agenda den hau.


Eskutan hartu orduko goxotasuna transmititzen du liburuak, gustu fina, zerbait atsegina. Antton Olariagaren azalak eta paper birziklatuak izango dute horretan zerikusirik.

Gure lurra eta asteroei begira

Gida-liburuaren lehen orrietan aurkituko dugu urte sasoiaren azalpena, Euskal Herriko klima mapa eta urteko ilgora-ilbeheren eta ilberri-ilzahraren zikloen egutegia. Aipatutako ilargi kon-tuen artean bereizten ez dakigunok la-sai, behingoz ikasteko azalpena bertan dugu eta. Ilargiaren eraginez ere gehi-go ikasiko dugu liburu honetan.

Hilean hileko eta astean asteko lanak

Orriak aurreratu ahala, esku artean agenda oso berezi bat dugula jabetuko gara: hilabete bakoitza Antton Olariagaren begietatik ikusiko dugu, hasteko. Epe horretan zer lan egin behar diren eta nola azalpenak ematen dizkigu liburuak: bai baratzean, fruitugintzan, lora-tegian edo basoan. Orrialde bakoitzak astebeteko agendaren orria erakutsiko digu, esaera batek alaitua: lurra lantzen dutenek baliatu ahal izango dute aurten egun bakoitzean zer eta nola egin duten xehe idazteko, uza datorrenean zertan asmatu den eta hurrengorako zer beste era batera egin, ondorioak atera ahal izan ditzaten. Lurra lantzen ez dutenek, bestelako lanen martxa eramateko baliatu ahalko dute, ohiko agenda moduan.



Lana zentzuz egiteko erremintak

Gida-liburuaren amaierako orrietan dugu "baratzea egiteko zortzi urrats" gida, inoiz lantegi horretan aritu ez dena ere "hurrengo urtean bai" tentatuko duena. Zein landare zein landarerekin ongi edo gaizki moldatzen den taula ere oso argigarria suertatuko da baratzea antolatzerakoan. Baita barazki bakoitzak noiz uza ematen duen agertzen duen taula ere, urtaroak planifikatzeko.

Ongarriketari buruzko taulak esango digu landare bakoitzak zer ongarri klasetik zenbat behar duen. Eta gaitzak datozenerako, tratamendu naturalak nola egin erakusten digu liburuak.

Euskal Herrian ekologikoan ekoizten dutenen zerrenda

Gida-liburu edo agenda oso honen beste ekarpen handietako bat da, Euskal Herri osoan ekologikoan ekoizten edo eraldatzen duten laborarien zerrenda ekartzen digula: herri bakoitzean zein laborarik zer gai egiten duen jakingo dugu honi esker.

12 euroan salgai ARGIAk

Ikasteko, erabiltzeko, eta eguneroko bizitzako bizipenekin norberak aberaste-ko irekia dago gida-liburua. Berau etxeratzeke edo besteri oparitzeko, ARGIAk duzu aukera: deitu (0034) 943 37 15 45 zenbakira, idatzi denda@argia.eus helbidera edo erosi internetez ARGIAren dendan. Hala eskatuz gero, Jakoba Errekondok sinatuta jasoko duzu.

Aurkezpenak:

ARGIA komunitateari esker atera dugu gida-liburu hau ere. Ospatu dezagun elkarrekin!

- Irailaren 20an Astigarragan: 19:00etan, lekua zehazteke.
- Irailaren 23an Busturian, Axpe auzoan: 10:00etan, azoka ekologikoan.
- Irailaren 28an Donostian: 11:30etan, Bretxako baserritarren azokan.
- Irailaren 28an Azpeitian: 18:00etan, Kimu Baten. ■

Aitor Arregi eta Jon Garaño, *Handia*

"GIZON ALTU SINESGARRI BAT NAHI GENUEN, EZ MUNSTRO BAT"

Migel Joakin Eleizegi Altzoko Handiaren eta haren anaia Martinen arteko harremanak eta bizipenek harilkatzen dute *Handia*, Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiatzeko hautatua. Errealitatea eta mitoarekin jolasteaz, errelatoaz, pertsonaien psikologiak, erronka teknikoez... aritu gara filmaren zuzendariekin.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Mitoea eta kondaira batetik, errealitatea bestetik. Denborak, esamesek, norberaren memoriak... itxuraldatzen dute errealitatea.

Aitor Arregi: Altzoko Handiari buruz dokumentatzen hasi ginenean, hori bera ikusi genuen. Datu historikoak badira, ez asko, eta makina bat kondaira eta istorio txiki (20 litro sagardo edaten zituela irakurtzen duzu, beste batek esaten dizu zezen bat altxatu zuela adarretatik hartuta...). Zer den errealitatea eta zer mitoa, pertsonaia honi oso lotuta dagoen auzia da, hari buruzko istorioak ere transformatzen eta desitxuratzen doazelako.

Jon Garaño: Altzoko Handiaren inguruan beste pertsonaiek mitoa sortzen duten moduan, pelikula ere gauza bera egiten du, joko horren parte gara.

Anaiaren ikuspegia da nagusi.

J. Garaño: Hasieran Migel Joakin zen protagonista, baina gero konturatu ginen interesgarriagoa zela erraldoia beste baten begietatik ikustea, bai

erraldoiaren istorioa kontatzeko, bai erraldoiaren inguruan zegoen horri guztiari buruz hitz egiteko ere, orduko gizarteari buruz. Guretzat, pelikulan funtsezkoa da XIX. mendeko testuinguru hori: bi indar daude talkan, mundu zaharra eta mundu berria, gerra karlistak tarteko, eta horren aurrean anaietako batek eta besteak jarrera bana hartzen dute. Batak ez du aldatu nahi baina kondenatuta dago aldatzera; besteak aldatu nahi du, baina mugatuta dago.

Diozue kondairaren eta errealitatearen arteko joko horren parte dela pelikula. Benetako historia oinarri hartzeak zein abantaila eta arrisku ditu? Errealitatea traizionatzeko garaian zenbateko tartea utzi diozue zuen buruari?

A. Arregi: Errealitatean oinarrituta dagoenean, jendeak beste dimentsio bat ematen dio istorioari, nahiz eta elementu narratibo bat gehiago baino ez den, inoiz ez duzulako kontatuko zehazki gertatu den bezala, sintetizatu behar duzulako, zulo beltzak daudelako...

Kasu honetan dokumentazio gutxi dago eta zulo beltzak bete egin behar ziren. Gainera, fikzioari logika bat eman behar diozu sarri errealitateak ez daukana. Materiala erreala da, baina zure terrenora ekarri behar duzu, malgu jokatzen eta istorioa zure egiten jakin behar duzu, datuen esklabo bihurtuz gero istorioa alde batera utzi dezakezulako; eta aldi berean mugak ere jarri behar dituzu, historiarekin eta pertsonaiarekin zintzoa izateko. Ariketa hori egin dugu etengabe.

J. Garaño: Benetako datu asko daude pelikulan, erraldoiaz dakizkigun datu garrantzitsu asko, eta hari buruz irakurri duenak antzemango ditu pelikulan. Zenbait detaile ere zaindu ditugu: garaiko Madrilgo egunkari baten erreproduktzioa ikusten da, Handiaz egin zuten ilustrazioa... Jendeak deskubritu dezala zer den benetakoa eta zer asmatua.

Zuen errelatoa egin duzue. Gure historia guk kontatzen ez badugu, beste batzuek kontatuko dutela irakurri dizuet.





A. Arregi: Garai baten errelatoa baka-
rrik ez, gure zinemari ekarpena egingo
dion errelatoa izatea ere espero dugu,
beste pelikula batzuekin elkarriketan
jarriko dena, osagarri, baina ez errelato
bakar izateko anbizioz.

J. Garaño: Argi dago gure ikuspuntua
jartzen diogula istorioari, eta sustraiak
non dauden ere garbi dago.

**Eta zuen ikuspuntutik, zertzelada batzue-
tan garaia irakurketa politikoa egiten
du filmak.**

J. Garaño: Esango nuke filmeko per-
tsonaiek ez daukatela kontzientzia po-
litikorik, baina bai kontzientzia soziala.
Konturatzen dira zerbait aldatzen ari
dela, mundu ezberdinak daudela, eta
aldaketa horiei aurre nola egiten dieten
da interesatu zaiguna. Batzuk egoerara
egokitzeko gai dira, norberaren intere-
sen arabera, eta beste batzuek ez dute
egokitzeko inongo asmorik, betikoari
eutsi nahi diote. Euskal Herrian esate-
rako nabaria izan da tradizioari lotze-
ko eta gauzak bere horretan mantendu
nahi izateko joera.

A. Arregi: Elementu identitarioak pisu
handia du pelikulan.

**Ñabarduraz betetako bi pertsonaia pro-
tagonistak dira istorioaren ardatza; bi
anaietan oinarritutako pelikula psikolo-
gikoa da. Aktoreen lana funtsezkoa da
halakoetan.**

J. Garaño: Oso pelikula gogorra izan da
denentzat, tartean baldintza teknikoak
ez direlako batere samurrak izan, eta
aktoreek ere lan handia egin dute. Fil-
mak erretratu zabala egiten duen arren,
egia da funtsean pelikula psikologikoa
dela eta inportantea da esaten dene-
tik harago kontatzen dena; horretarako
aktoreen lana ezinbestekoa da. Aktore
guztien emaitzarekin oso pozik gaude,
eta protagonisten kasuan, Eneko Sagar-
doy [Altzoko Handia] aktore kamaleo-

» “Altzoko Handiaren
inguruan beste
pertsonaiek mitoa
sortzen duten moduan,
pelikulak ere gauza bera
egiten du, joko horren
parte gara”

» “Garai baten errelatoa
bakarrik ez, gure
zinemari ekarpena
egingo dion errelatoa
izatea ere espero dugu,
osagarri eta ez errelato
bakar izateko anbizioz”

» “Bi aktore nagusien arteko
kimika oso inportantea da,
pelikulan islatzen delako
oso pertsonaia ezberdinak
izan arren, konexio uneak
dituztela, zerbaitek lotzen
dituela”

» “Konturatu gara gurea
ez dela zigilu pertsonala,
talde-zigilua baizik: gai
gara gure pelikuletan
Moriarti produktora
antzemateko”

nikoa da, oso fisikoa eta teknika handi-
koa, eta lortu du oso gauza zaila: Migel
Joakin erraldoia sinesgarri egitea, kon-
tuan hartuta bilakaera dramatiko han-
dia duela pertsonaia. Joseba Usabiagak
[Martin anaia] asko transmititzen du
begiekin, keinu txikien bidez, eta bene-
kotasuna eman dio pertsonaiari, bera
denaren eta izan nahi duenaren arteko
borroka irudikatu du; lortzea pertso-
naia bere burua era batera ikustea eta
ikusleek beste era batera, hori erronka
handia da. Eta oso inportantea da bien
artean dagoen kimika, pelikulan isla-
tzen delako oso pertsonaia ezberdinak
izan arren, konexio uneak dituztela, zer-
baitek lotzen dituela.

**Sinbolo eta metaforak atsegin dituzue.
Loreak filmeko ardia al da Handiako
otsoa?**

J. Garaño: Sinbologia handia dago, bai,
baina gauza horiek ez dira kontatzen,
ikusle bakoitzak egin ditzala bere in-
terpretazioak. Detalle asko daude, gus-
tatzen zaigu ikusleari halakoak plan-
teatzea, denek antzemango ez dituzten
arren. Heldulekuak ere badira guretzat,
pelikulak zerbait kontatu nahi duela
adierazten duten heldulekuak, gizar-
teaz, identitateaz, askatasunaz, alda-
ketaz, egokitzeaz... Saiatzen gara krip-
tikoak ez izaten, baina agerikoegiak
ere ez.

A. Arregi: Erraldoia bera metafora da
guretzat: pelikulan duen bilakaera fi-
sikoak berak nolabait islatzen du han-
ditzen eta transformatzeko doan mitoa,
gelditu ezin duen eta handitzen doan
hori, aldaketa delako aldaezina den gau-
za bakarra.

**Pertsonaiek hitz egiten duten euskarak
zein ezaugarri izango zituen erabaki-
tzeak denbora asko eskatu al dizue?**

J. Garaño: Buruhaute batzuk eman diz-
kigu, ez delako tratamendurik erre-



listena, baina azkenean erabaki dugu gipuzkera kutsua mantendu arren gipuzkera hutsean hitz egiten ez jartzea pertsonaiak, hasteko ez dakigulako nola hitz egiten zuten benetan garai hartan. Pertsonaia donostiarrek, nafarrek, kostaldekoek... ere euskara ezberdinak darabiltzate. Eta Altzoko gaur egungo euskarari keinu batzuk egin dizkiogu. Finean, ziurrenik ez da euskararik errealistena, baina naturaltasuna hobetsi dugu, eta hainbaten laguntza izan dugu bide horretan.

Errodatzeko ia Euskal Herri osoa zeharkatu duzue. Zein garrantzi du paisaiak filmean?

J. Garaño: Paisaiak eta lurrak garrantzi handia dute, istorioa eta pertsonaiak markatzen dituelako: non dauden, zein ibilbide egiten duten eta non amaitzen duten. Pertsonaien unibertsoarekin lotzen gaitu paisaiak, inguruak ere egiten duelako pertsona.

A. Arregi: Ere mu epikoa eta intimoa uztartzeko aukera ere ematen du paisaia-rekin jolasteak.

80 egunean filmetik Loreak-era salto kualitatiboa aipatu zenuten (estetikan, muntaketan...). Beste salto bat eman eta erraldoi bat irudikatzeke erronka izan duzue oraingoan. Arriskuak hartzea gus-tuko duzue?

J. Garaño: Lantaldea horrelako pro-dukzio bat egiteko gai garela ikusteko erronka izan da hau, teknikoki produkzio handia baita guretzat. Gainera, *Loreak*-ek poz eta gauza eder asko ekarri zizkigun, baina azkenerako nekatuta amaitu genuen eta argi geneukan film honek beste zerbait izan behar zuela, ezberdina. Errealizazioak, istorioa eramateko moduak... beste estilo bat daukate, nahiz eta gero konturatu ga-ren uste genuena baino konexio gehiago daudela bi pelikulen artean; gure uni-

bertsoko gauzak antzematen ditugu, uste genituenak baino gehiago.

A. Arregi: Erronka ugari izan ditugu: XIX. mendea modu sinesgarrian sor-tzea, animaliekin lan egitea, gerra iru-dikatzea... eta erraldoia bera. Amarru analogikoak eta efektu digitalak uztartu ditugu eta plano eta eszena bakoitza azterketa eta borroka bat izan da, erro-daje-egun batean balio zuenak hurren-goan agian ez zuelako funtzionatzen. Beti izan dugu argi gizon altu errealista eta sinesgarri bat nahi genuela, natu-rala, ez munstro bat; ikuslea istorioan sar dadin eta ez dadin egon denbora guztian pentsatzen erraldoia lortzeko zein teknika dauden atzean. Erraldoi protagonista, emozioak garatuko ditue-na, gainerako pertsonaiekin hartu-e-manen egongo dena eta aldi berean istorioa estaliko ez duena, hori guztia orekatzea ez da erraza izan.

Loreak filmaz nekatuta bukatu omen du-zue, baina saihestezina izango da konpa-raketa. Beldurra ala konfiantza ematen dizue aurrekariak?

J. Garaño: Konparaketak izango dira, bai, eta bestelako harrera eta ibilbidea izango ditu film berriak, baina gu lasai gaude, pelikula ezberdina egin dugulako eta ez dugulako *Loreak 2* egin nahi izan.

A. Arregi: *Loreak*-en eraginez eta Al-tzoko Handia pertsonaiak duen erakar-garritasunagatik, espektatiba handia dagoela, hori bai nabaritu dugu. Beldur pixka bat ematen du, bai...

Moriarti produktoran duzuen filosofiaren barruan ulertzen da, baina baten batek esango du: Garañorekin batera Loreak-e-ko zuzendari aritu zen Jose Mari Goena-garen ordezkari, Aitor Arregi dago orain.

A. Arregi: Gurean normala da eta ez da aldaketa handia, taldelanean oina-rritzen garelako eta hasiera-hasiera-tik egin ditugun labor, dokumental eta

fikzioetan rola banatzen eta aldatzen joan garelako. *Loreak*-en ni nintzen le-kuan dago orain Jose Mari. Gure lan egi-teko moduan badu logika, inork ez deza-la pentsatu Jon eta Jose Mari haserretu direnik, kar kar kar.

J. Garaño: Aitor eta Jose Mari oso ezber-dinak dira eta ondorioz dinamika ere beste bat izan da, baina ez dugu elkar egokitu behar izan, Moriartin hasieratik elkarrekin aritu garelako. Denborare-kin konturatu gara gurea ez dela zigilu pertsonala, talde-zigilua baizik: gai gara gure pelikuletan Moriarti antzemateko; guri interesatzen zaizkigun gaiak eta jo-rratzeko moduak errepikatzen dira. Pe-likula ezberdinak eginagatik, konexioak eta loturak aurkitzen ditugu batzuen eta besteen artean.

A. Arregi: Pertsonaia paradoxikoak, ko-munikazio arazoak, identitatea... aurki-tuko dituzu gure lanetan.

Alfonbra gorriara ohituta zaudete eta hein batean euskal zinemaren ordezkari za-reten neurrian, ardura sentitzen duzuela esan izan duzue. Zama da ala harrotasu-na?

A. Arregi: Zamarik ez, harrotasuna. Ez gara bakarrak, gurea ekarpen bat gehia-go da, momentu jakin batean fokuak erakarri ditzakeena, baina zorionez lan interesgarriak egiten ari den jende ugari dago, eta atzetik etor daitezkeenei atea irekitzen eta Euskal Herrian filmak egi-teko aukera dagoela erakusten ari baga-ra, pozgarria da.

J. Garaño: Inork ez digu ordezkari-la-na jarri, baina egia da gure pelikulek kanpora bidaiatu dutela eta aukera ona izaten dela hemengo errealtatearen, kulturaren, hizkuntzaren berri emateko. Gurea industria txikia izan arren, gero eta handiagoa eta anitzagoa da eta eus-kal zinemagintzan sekulako urteak da-tozela uste dut, proiektu interesgarriak daude bidean. ■

Remigio Mendiburu

Txango historiko bat

XX. mendeko euskal artista nagusien artean, Remigio Mendiburu hondarribiarra. Bost eskultura dauzka ikusgai jaiotze-hirian sakabanatuta. Zer hoberik, horiek guztiak txangoan lotzea baino. Mendibururen obra ezagutuz ezagutzeko Hondarribia.



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga

ARGAZKIAK: NÚRIA JUAN SERRAHIMA

Artearen kontzeptzio estu batetik –jar dezagun estetikaren sublimazio gisa ulertuta–, pentsa daiteke Hondarribia dela artea inspiratzeko toki egokia: imajinatu, mihise, pintzel, kapela, pinto-rea hiriko estampa eder horietako bat harrapatu nahian. Baina, kasualitatea, gertatzen da historian zehar artearen garapenerako gune egokia ere izan dela. Egun aktibo dagoen artista sorta horren erakusgarri: Judas Arrieta, Sergio Prego, Maider Goikoetxea, Iñaki Gracenea, Aiert Alonso, gutxi batzuk aipatzearren. Denboran atzerago eginda, jakingarria da Hondarribiak Gaur taldearen osaketan izan zuen garrantzia.

Gaur taldeak, aurkezpenik ez du behar, 60etako euskal artea irauli zuen, hurrengo hamarkadetako artearen oinarriak jartzeaz gainera. Tartean ziren Oteiza, Chillida, noski, Amable Arias bezalako artista gorenak. Hondarribiari dagokionez, Alde Zaharrean zituzten tailerrak Rafael Ruiz Balerdi eta Jose Antonio Sistiaga taldekideek. Nestor Basarterretxea oraindik ez zen bertan bizi, baina Oteizarekin batera etxea zuen Irunen, salto batera. Eta, nola ez, gaur guri hemen interesatzen zaigu, hiriko seme bat zen partaide esanguratsu, Remigio Mendiburu, Hondarribian zehar txangoa egiteko aitzakiatzat hartuko dugu-


na. Aitzakia baino, motibo, eta ez nola-nahikoa: Mendibururen obra ezagutuz ezagutuko dugu Hondarribia, eta Hondarribia ezagutuz Mendibururen obra.

Remigio Mendiburu, Oteizarentzat: “Zalantzarik gabe, gure artean, euskal sendotasun handieneko eskultorea” (eta hori zehatz zer den auskalo), “identifikatuena gure Euskal Herriarekin, eta modurik sinpleki naturalenean”. Bernardo Atxagak ulergarriago esan zigun: “Euskal Herrian sekula izan den artistarik basatiena”. Hondarribian jaio zen, 1931n, eta Hondarribian datza, 1990ean Bartzelonan hil ondotik. Datza, halaber, bere obraren erakusgarri batek. Ez alferrik, guztira bost eskultura daude sakabanatuta hiriko beste hainbeste puntutan. Seigarren bat ere bai, baina Herriko Etxeko Batzar Aretoan: zail da Ama Gualupekoaren irudi hori ikustea, ez bada udal bilkura edota ezkontza batean; biak ere okasio nekezak, aukeran.

Ur ertzetik

Nolabait antolatu behar txangoa, eta has dezakegu bidea behetik, ur ertzetik, hain zuzen Bidasoa eta aireportua gurutzatzen diren lekutik. Puntal (garai batean de España) auzoa, bertan dago Txoria, justu European zeharreko migrazioan hegaztien pausaleku den Txin-

Ezkerrean Mendibururen ‘Talua’, Hondarribiko Alde Zaharrean. Eskuinean, ‘Txoria’, Pierre Lotiri eskainitako parkean dagoena.



gudiko badian. Lakio, kaiola, ehiztari tranpak egin izan zituen Mendiburuk, txori bat aske egin zuen 1985ean, itxura batean kantuan. Brontzeak ezin, urte sasoiaren arabera migrariet zail, suerte pixka batekin baltsen bat entzun daiteke pianoan, Chopin, etxe bateko leiho-tik. Pierre Lotiri eskainitako parkean dago Txoria, idazle-militarrak Hendaian zuen etxea parez pare. Estatua bat jarri nahi izan zioten hortxe behin, aspaldi (edo ez hainbeste), baina omendua antiklerikalegia omen zen. Mendibururena Lotirenean jarrita, kontzientziaren bat baretuko zen azkenean.

Bertan ramuntxo egoteko tentazioa utzi, eta jarrai dezagun aurrera. Javier Ugarte kalean, Carlos V.aren gaztelu atzean, Oilar-eneatik Alde Zaharrera igotzen gaituen igogailuaren ondoan, Talua. Eskultura bereziki entrainablea. Jaso bezala kontatuko dut: ondoko etxe-ko teilatutik, Mendibururen tailer, bota omen zuen eskaiola puska handi bat, eta erori moduan egin zuen handik denbora batera pieza brontzean. Mendiburuk amaren suizidioarekin lotzen zituenez lurreko txoke horiek, lanerako bide hori utz zezala eskatu zion Oteizak.

Handik ez oso urruti, Eguzki plazan, udalak eskuratu Mendibururen azkena, Izenbururik gabea (horixe du izenburu).



Handik ez oso urruti halaber, Remigio Mendiburu kalea. Kale horretan bizi direnekiko errespetu guztiarekin: eskasegia artistak merezi duen aitopenerako. Google Maps-en ere ezin da ikusi. Eta, hona iritsita, eskaera bat: erakundeek hartu beharko lukete lana, fundazio, museo edo dena delako bat sortzeko, beste batzuekin egin den bezala –Oteiza, Chillida, zorte hobe edo makurragoarekin–, Mendibururen lana ezagutarazteko.

Mendira

Mendi aldera egin beharra dugu orain, Guadalupeko ermitara. Ondoko zelaian dago *Txalaparta*, Ez Dok Amairu taldearen irudi ikoniko, 1966ko Veneziako Bienalean erakutsi zena. *Txoria* bisitatuari gertatzen zaion gauza bera: originala zen egur, brontzera pasatzean galdu dute graziaren parte handi bat. Eskulturak baliatu izan dituen mate-

rial guztiak landu zituen Mendiburuk, baina zurarekin izan zuen erlazioagatik da ezagun. Pagoa batez ere, eta haritz. XII. mendeko Bernardo sainduak esandakoari kasu egin izan balio bezala: “Basoak liburuek baino gehiago erakutsiko dizu”. Material pobreak erabili izan zituen, inork nahi ez dituenak, material oparitu, utzi, aurkituak, habe zahar, enbor ahaztu, zabortegietatik hartuak. Noski, zura aire zabalean gaizki, brontzean erakustea litzateke aukera txarren artean onena.

Oraindik gorago, Jaizkibelgo tontorren ondotoxoan, *Herrien Batasuna*, izen antzeratsuko alderdi politikoa baino puskaz lehenago, 1963an. Arrautza Frijitua izen popularragoarekin ezagutzen du jendeak. Sinbolikoki indartsu: Pasai Donibane (Pasaia Hondarribikoa zena) eta Hondarribia liskartuta ibili dira, XVII. mendetik aurrera. Adibidez, pasaitarrek

burujabetza aldarrikatzeko ekintza bat egin, eta Hondarribiko apaizak adar bedeinkatu batzuk eta gurutze bat haien aurka jaurti. Hortik *Herrien Batasuna* mugarriaren beharra, historiako bake garairik egonkorrenari bide egiteko. Mendiburuk eskultura dagoen tokian jartzeko erabakia hartu zuen bikote bat ikusi zuelako bertan zirrika, amodio gune gisa. Ez litzateke eskultura bultzatzeko estrategia okerra, zirriak egiten diren leku bakoitzean jartzea bana.

Eskulturak nola eta non lekutu erabakitze orduan izaten omen zituen Mendiburuk zailtasunak. Ibilbidea bukatuta, esan dezagun hobeto daudela dauden moduan eta lekuan –ez akaso ondoen–, inon egongo ez balira baino. Gogoratuz Oteizak Mendiburuz esan zuena, “historiko bat, kritikarik gabeko, historiarik gabeko herri batean”, osatu dugu txangoa. Txango historiko bat. ■

BABESLEA: HONDARRIBIKO EUSKARA ZERBITZUA



Hondarribia
euskaraz bizi



Hondarribiko Udala



KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Altxor txiki bat



Xabier Etxaniz Erle

2005ean kaleratu zen lehen aldiz, Erein etxean, Patxi Zubizarretak eta konpainiak egindako liburu hau. Hainbat urtez agortuta egon ondoren Elkar argitaletxearen eskutik plazaratu berri da eta irakurleen esku jarri obra guztiz interesgarri eta gomendagarri hau.

Liburura hurbiltzen denak berehala ikusiko du obra bitxia dela. Bildumetatik at, azal gogorrez, 2 CD barruan, eta Jokin Mitxelenaren irudi ugariz hornitua. Baina berehala antzeman daitezke ezaugarri edo paratestu horiez gain testuan pieza solteak agertzen direla tartekatuta. Eta horixe da, hain zuzen, liburu honen egitura. Istorio baten barruan hainbat herri kanta, ipuin, ateraldi... osotasun bat lortuz.

Kattalin, Nikolas eta Madalen Graziosenera joan dira gurasoekin Eguberriak pasatzera, han aitonarekin elkartzen dira eta honek inguruak erakusten dizkie, eta asto gainean dagoela aprobetxatuz *Aita-semeak asto gainean* ipuina kontatuko die; geroago amona agertzean bilobak besarkatu eta bakoitzari kanta bat abestuko dio: *Kattalin txiki-txiki*, *San Nikolas txikia* eta *Andre Madalen*. Bilobak jolasten ibiliko dira, eta bizi duten egoera edo unearen arabera ipuin bat, kanta bat, istorio edo ateraldi bat kontatuko diete. Beraiei bakarrik ez; liburuarekin batera dauden CDetan horietako asko eta asko grabatuta baitaude eta aukera dago horiek entzuteko euskal artista ezagunen eskutik (Mari Karmen Odriozola, Martin Tejeria, Joxe Arratibel,

Urrezko giltza

PATXI ZUBIZARRETA

Ilustrazioak: Jokin Mitxelena.

Musika: Joserra Senperena.

Elkar, 2017. 165 orrialde.

Haurrentzat.

Patxi Zubizarreta Dorronsoro idazlea (Ordizia, 1964).



Jose Ignazio Ansorena...); horietako batzuek, gainera, abestu egiten dituzte liburuko kantak Olatz Zugasti, Maddi Oihenart, Josune Lopez edo Abendaño ikastolako abesbatzarekin batera. Luxu bat gure belarrientzat, are gehiago horiek guztiek iragana orainera ekartzen digutelako. Horixe baita liburu honen baliorik handienetakoa, euskal tradizioa, folklorea, gaur egungo haurrei modu erakargarri eta atseginean eskaintzea.

Zubizarreta kapaza izan da batzeko kontakizun hari baten barruan *Amona mantangorriren esaerak*, *Zezenak dira* kanta edo *Sendagile gaztea* ipuina, adibidez, bata bestearen ondoren, irakurlea saltoetan jarriz genero, estilo edo tematika aldetik.

Poliki-poliki edo segidan irakur edo dasta daitekeen altxorra dugu liburu hau, etxean oheratzerakoan edo eskolan, bana-ka edo taldean, baina modu batean nahiz bestean irakurlearen gozamenerako izango da. Eta hala bazan eta ez bazan... ■

» KONTZERTUA

Euria eta debozioa



Montse Auzmendi

Udako Musika Hamabostaldiaren ondoren, baditugu udazkenean hainbat musikaldi interesgarri han eta hemen. Hauetako bat Zumarragako Antioko Musikaldia da, aurten 34. edizioa ospatzen duena. Urtez urte publikoa gerturatzen da Antioko Baseliza ederrerraino bake momentuez disfrutatzeko.

Beste garai batzuetan nazioarteko artistak etorri izan dira, baina, imajinatzen dugu azkenaldiko krisia dela eta, urte hauetako edizioetan gure inguruko artistek osatzen dituzte ondo pentsatutako egitarauak. Halaxe da aurtengo musikaldian. Irailaren 9an hasi zen *Artxipielagoa* ikuskizunarekin, eta iraileko larunbat guztietan, urriaren 1era arte, Iñaki Salvador eta Ainhoa Zubillaga, Sariranaga taldea, Koruko Andra Mari Musika Kapera eta Easo Eskolania, eta Emilio Villalba eta Sara Marina artista eta taldeak arituko dira jaialdi honetan.

Artxipielagoa espektakulua izan zen lehenengo hitzordua. Nahiz eta oso eguraldi txarra egin, publikoa debozio osoz iritsi zen baselizara. Kontzeptu berritzaile bezala aurkeztu da talde honen lana, eta puntu bateraino hala da. Taldekide bakoitza musika arlo batetik dator, eta halere, jakin izan dute elkar ulertzen eta fruitu komun bat ematen. Ez da lan makala. Baina, azken batean, baloratu behar da emandako fruitu hori. Orokorrean, eta ez dut ezkorra izan nahi, planteatutako ideiak ez du gehiegi aportatzen. Ainhoa Garmendia soprano zoragarria da (eta, benetan, saioaren onena izan ziren bere aktuazioak), Peio Ramirez biolontxelo eta akordeoi-jotzailea musikari ona

34. Antioko Musikaldia

ARTXIPIELAGOA

Ainhoa Garmendia:
sopranoa.

Andoni Egaña:
bertsolaria.

Peio Ramírez:
biolontxelo eta akordeoia.

Garikoitz Mendizabal:
txistua.

German Ormazabal:
pianoa.

Zumarragako Antioko
Ermitan, irailaren 9an.

da, oso adierazkorra, Garikoitz Mendizabal txistulariak menderatzen du bere soinu tresna, Andoni Egañak izugarrizko trebezia du eta German Ormazabal piano-jotzaile eraginkorra topatu genuen. Primeran. Baina ikuskizun flojotxoa suertatu zen. Egañak esfortzuak egin zituen osotasunari lotura emateko, bere bertso eta komentarioekin. Baina azken batean, sustantzia gabeko produktua izan genuen. Benetako luzimendua Ainhoa Garmendiarena izan zen, oso adierazkorra Cotarelo-ren *Nun zeran* eta Telleriaren *Loa loa* kantuetan, adibidez. Mendizabalek izan zuen bere une distiratsua Peio Ramírezek konposatutako *Dantza nazazu* arin-arin-ean. Egañak freskotasuna eman zion saioari uneoro, eta Ramírez eta Ormazabal doi-doi aritu ziren. Halere, hobe artxipelago horretako irla bakoitza bere aldetik eta bere estiloan aritzen denean. ■

*Ezkerretik eskuinera,
Andoni Egaña
bertsolaria, Ainhoa
Garmendia sopranoa,
German Ormazabal
piano-jotzailea,
Peio Ramírez
biolontxelo-jotzailea eta
Garikoitz Mendizabal
txistularia.*





Koban hiria

KOBAN

Irailaren 9an, Zarauzko Euskal Jaietan.
Hurrengo kontzertua: irailaren 23an Sopelan.



Andrea Zubozki

ARGAZKIA: BEGIPUNTUAN

Zarauzko Euskal Jaietan, Koban taldea ikus entzuteko aukera izan dugu. Japoniar txanpon bat, polizia postu bat, taldearen izenak sinifikazio frango ditu. Nik, beste askok bezala, Kurdistaneko hiria irudikatzen dut.

Kobaneko hirian zazpi musikari aurkitzen ditugu: Alde zaharrean, kabaret giroak sortzen dituen sampler eta instrumentu elektronikoetan, Joseba. Soinu ezberdinak erabiltzen ditu; erratzekin ferekatutako atabala, erien klixkak, txarlezton biziak... Gustuzko xehetasun anitzekin eraikitzen da base erritmikoa. Baxua ere, soinu aberatsez osatua, elektronikaren kaleetatik irteten da. Industrialdean atzematen ditugu gitarra eta pianoa. Bi enpresen lanak swinga inposatzen du hiri guzian! Hala ere, proposamen erritmikoetatik urruntzen ahal dira, piano solo mailukatuekin eta gitarra esaldi «fuzz»atu batzuekin. Bi mu-

sikariak, aitzin gibelka, soinuan erabat sartuak dira. Hiriko hondartzan, Onintza eta Rakel, triki eta gitarra, taldeko «abeslari nagusiak». Abeslari nagusiak, nahiz eta denek asko abesten duten taldean.

Protagonismo gutxi agertzen da. Trikitia, beste instrumentuen gisa, fina eta ongi eramana da; abestien «xerbitxuko». Ez gara «triki-swing» edota horrelako edozein tranpetan erortzen.

Periferietan orain, koruak. Alimaleko indarra ekartzen diote taldeari, eta Kobaneko hiria kolore ezberdinez margotzen dute. Iruditzen zait Kobanen indarra taldekideen ahots nahasketatik heldu dela; xuxena izateaz gain, energia ekartzen du. Energia, badute eta transmititzeko gai dira ere! Kantuz kantu, zazpi musikariek hiria inarrostean dute!

Hastapenean, arazo bat agertu da soinuaren, halako frekuentzia ibiltari bat. Baina kezka laster konpondua da, eta

taldearen soinuak sorpresa polita ematen digu; gehienetan estilo horretan, atzeko «bum-bum-bum» hori da gehien notatzen, baina Kobanek finago jotzen du, eta erritmo sanpleak goxoki nahastu ditu beste instrumentuekin.

Lagun batekin komentatu dugu: soinuaren goxotasunak Zarauzko Udalak inposatu «dezibelometroarekin» zer ikusirik badu? Laster konturatu gara Udalak soinu nahasketa on batekin ez duela zerikusirik.

Publikoan, lehen notatik azkenera arte, besta giroa biziki ederra da. Denak beti dantzan, soinuak harrapatu egin gaitu. Erran behar da gau honetan eurria jauts ahala ari duela, baserritarrez moztarrotutako hiritarrak trenpan utziz. Baina publikokoak hor gelditu gara bukaera arte, Kobanekoek *Necropoly* abestian kantatu diguten arte... nahiz eta nekropolirik ez dugun ikusi Kobanekin. ■

Hitz gezidunak

Gaia: Ur kirolak

 Cuteshef66-CC By SA		SARRITAN ----- UME, SEIN	2 ----- ONARRIZKO EDARI	LAN ETENALDIA	EUSKALTEGI SAREA ----- DONARI, GOLARDO	 RK.FO-CC By SA	
TXARTELAK ----- KODES MEN- DILERROKO MENDIA	EUSKAL FONEMA ----- ITXURA, ANTZA	ARROZAK ----- ISEKA, BURLA	AGERTU ADITZAREN ERROA ----- ÁTZIZKI FEMENINOA	ERREP, LOGURAREN EULIA ----- 3	DIGES- TIOAREN ORGANO ----- ZAPORE ONA	GAUZA, KAPAZ ----- ROENTGEN	
HOZI (ALDE- RANTZIZ) ----- 1		SUEDIAKO HERRITARRA ----- MINISTERIO- AGINDU	ADINKIDEAK ----- SUAK	HIGH DEFINITION ----- BURUSI, OHE-ESTALKI	1 ERROMA- TAR ERARA ----- POLINESIAKO UHARTEA	SODIOAREN SINBOLOA	
BAREA-REN BOKALAK ----- UKATU ADITZAREN ERROA		ALBANIAKO DIRU UNITATEA ----- POTENTZIA UNITATEA	BEHARBADA ----- MAITE..., PELOTARIA	4 ----- OSPETSUAZ			
 3		HERRI HIZKE- RAN, ETA AGIRIA (AL- DERANTZIZ)	...-MAIKO, ZALANTZA ----- ANPEREA	GITARRA JOTZEKO PIEZA	 Massimo Finizio-CC By SA		

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako
zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko
koadro bakoitzean errepikatu gabe.

				9		4		
			4	6		5		
	4		8		7	9		
	8	1						9
	3	2		1		8	4	
7						1	5	
		8	9		6		3	
		6		3	1			
		4		5				

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Putzu.
2. Sekzioa, departamendua.
3. Gaixotasun infekzioso.
4. Argitasunik gabea.
5. Trankil, bare.

Ebazpenak

8	2	3	1	9	5	4	7	6
1	9	7	4	6	3	5	3	2
6	6	4	5	8	2	7	9	1
4	8	1	5	7	2	3	6	9
5	5	3	2	6	1	9	8	4
7	6	9	3	8	4	1	5	2
2	2	1	8	9	4	6	7	3
9	5	6	7	3	1	2	8	4
3	7	4	2	5	8	6	9	1

5x5:
1. Istil. 2. Saila.
3. Tifus. 4. Iluna.
5. Lasai.

	V	I	Z	V	K	T	V	
	O	K	A	V	V	T		
	Z	A	U	A	M	F		
A	O	L	O	P	E	R	W	A
N	V	I	V	G	I	K	L	E
	A	K		J	O	N	K	I
I		D	H		E	R	N	A
A		R	I	A	R	S	U	E
G		U		E	R	A	Z	T
			K	S	A	I	R	I
			T	S	E	A	U	R
					V	A	M	

Erika Lust. Pornografia feminista



Zientzia Politiko, Feminismo eta Sexualitate ikasketak egin zituen Lundeko Unibertsitatean Erika Lustek (1977, Stockholm). Pornografia konbentzionala gizonezkoentzat egina zegoela ikusirik, helduentzako zinemagintza alternatiboaren aldeko apustua egin du Bartzelona bizitoki duen zinema zuzendari suediarrek.

“Emakumezkoei itzuli diet pornografiaren generoa”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: ERIKA LUST FILMS

Pentsaerak eraldatu

“Suedian jaio nintzen eta heziketa sexual bikaina jaso nuen, irekia, munduko beste hainbat tokitan tabua diren gauzak jorratuz; pornotik hasita feminismoa bitarte. Hala ere, pornografiaren industriarekiko interes erreala beranduago piztu zitzaidan. Aurki ikusi nuen porno konbentzionala gizonezkoentzat egina zegoela gehienbat, eta ez hori bakarrik, baizik eta gainera garbiki sexista zela. Zientzia Politiko ikasketak egin nituen bitartean Linda Williamsen liburu bat iritsi zitzaidan esku artera; bera izan zen pornoa kontakizun propioa zuen genero gisa landu zuen lehen idazlea, eta hari esker hasi nintzen kontakizun horren parte izateko irrika sentitzen”.

Stockholmen jaio zinen baina Bartzelonan bizi zara. Nolatan iritsi zinen Kataluniara?

Erasmusek Madrilera eraman ninduen 22 urte bete nituenean. Ondoren Bartzelonara lan bila etorri nintzen, eta nola ez, itsasoa maite dudalako. Hasieratik argi izan nuen hemen geldituko nintzela.

Pornografia oro har gizonezkoentzat dago egina. Eboluziorik egon al da sektorean?

Gaur egungo pornografiak ez du zerikusirik 70eko edo 80ko hamarkadetakoarekin. Nik *punish fucking* gisa definitzen dut. Sexua ez da agertzen pertsonen egiten duten zerbait bezala, baizik eta emakumezkoak gizonezkoari egiten dion hori bezala. Gogoeta kritikoa egiten duen edonor konturatuko da sarean dagoen pornografia osoaren %99k emakumea irudikatzen duela gizonezkoei plazerra emateko lanabes gisa. Pornografiaren industria gizonezkoaren begiradan oinarrituta dago. Nik ema-

kumezkoari itzuli diot pornografiaren generoa: emakumeok ere bagara izaki sexualak.

Badago uste duenik pornografia konbentzionala gure gizartearen erakusleio dela. Ados zaude?

Internetek errotik aldatu du baina, era berean, ez du pornografia jabez aldatu. Gizonezkoen fantasiak ekoizten dituzten gizonezkoek menderatuta jarraitzen du. Artista, sortzaile eta intelektual gutxi dago sektorean. Gaur egungo pornografia McDonald's-aren gisakoa da, merkea, eta oro har ez osasuntsua. Une batez asetzen zaitu, baina irentsi ondoren gaizki sentiarazten zaitu, emakumea agertzen den moduarengatik.

Erreferentziarik izan duzu?

Uste dut pornografiaren urrezko aroaren filmak interesgarriak direla. Gidoiak eta pertsonaia interesgarriak zituzten eta zinema kameraren bitartez grabatzen ziren. Hala ere, genero honek sekulako potentziala du eta uste dut inork ez



duela jakin hori ustiatzen. Nire erreferenteak beraz artean, argazkilaritzan eta zinema konbentzionaletan daude gehiago.

Nolakoak izan behar dute zure filmetan parte hartuko duten aktoreek?

Nire balore eta ikuspegiekin bat datozen pertsonekin lan egitea gustatzen zait. Bi baldintza ditut. Bata gorputz naturalak izatea, operatu gabeak. Bigarrena, eta oso garrantzitsua, 21 urtetik gorakoak izatea. Uste dut esperientzia sexuala izatea eta helduentzako zinema egin nahi dutela argi izatea garrantzitsua dela.

Noizbait erran izan duzu gizartea *pornifikatuta* dagoela. Zergatik?

Pornografia konbentzionala hedabideetan sartu da, dagoeneko ez dago ezkutatuta, hedapena du. Begiratu Pornhuben iragarkiak, denek dituzte milioika ikus-taratze... Pornhubek eduki propiorik ere ez du, ekoiztetxeetatik ebatsitako edukiak erabiltzen ditu, erabiltzaileek igotzen duten edukiari erreparatu gabe.

"Internetek errotik aldatu du baina, era berean, ez du pornografia jabez aldatu. Gizonezkoen fantasiak ekoizten dituzten gizonezkoek menderatuta jarraitzen du".

Eta ez dut inoiz ikusi, emakumea nola erabiltzen den zalantzan jarri duen gizonik. Kontrakoa, jendeak txalotu egiten ditu. Hain ohituta daude normaltzat ikusten baita.

2014an XConfessions.com egin zenuen. Zer zen zehazki?

Webgune bat da, erabiltzaileek euren fantasia sexualak edota historia intimoak idazteko pentsatua. Nahi den hizkuntzan idatzi daitezke. Nik ikusten ditut eta hilabeteko bi aitormen aukeratzen ditut webgunean bertan publikatzen ditugun film laburrak grabatzeko.

Hiru urte beteko ditu egitasmoak aurten. Nola joan da?

Oso ongi! Enpresa izugarri handitu da. Irailean 10. bolumena publikatuko dugu

eta dagoeneko 100 film labur egin ditugu. Mezu asko jasotzen ditut, gizon-nezkoena eta emakumezkoena, hala-ko espazio bat sortzeagatik zoriontzen nautenak.

Baikorra zara? Uste duzu pornografia konbentzionalak egingo duela emakumezkoen aldeko begiradara biraketa?

Pornografia konbentzionala ez da desgertuko. Tira, ez dago zentsuratu beharrik. Bakoitzak ikus dezala nahi duena. Baina gaur egun badago helduentzako zinema alternatibo baten eskakizuna. Egin behar dena da ekoizpenaren kontzientzia sustatu. Industrian parte hartzen dugun agente guztiek haren inguruko eztabaida sustatzeko ordua da. Eta bide batez, gure seme-alabekin hitz egin behar dugu pornografiar. Edozein momentutan egingo dute horrekin topo eta arazo horri aurre egin behar diogu. Horretarako sortu dut, Pablo Dobner nire senarrarekin batera, thepornconversation.org, irabazi asmorik gabeko egitasmoa. ■



EAJren independenttziarako plan ezkutua: Espainia apurka zatitu dadila, “Euzkadi bakarrik geratu arte”

“Kataluniak irekiko du bidea, eta haren ondotik banan-banan bereiziko dira autonomia erkidego guztiak, Euzkadi bakarrik geratu arte Espainian; horra independentzia, esfortzu handirik gabe”. Esaldi horrekin hasten da Euskadi askatzeko EAJren bide-orri hiper-sekretua, Beranduegiko ikerketa sailak Sabin Etxeko garbitzailea botila bat txakolinen truk erosiz eskuratu duena.

Dokumentuak ez du zehazten nola garatuko den plana, baina onartzen du zaila izango dela Murtzia, Madril, Gaztela-Mantxa eta besteren bat sezesioaren bidean jartzea. “Tira, pazientziaz dena



Iñigo Urkullu disimuluz Rajoyri bostekoa ematen, “kar kar, gure plana ezagutuko bazenu...” maltzurki pentsatzen ari den bitartean.

lortzen da, eta guk pazientzia erruz daukagu; pentsa, Urkulluren diskurtsoak osorik entzuteko gai gara, ia lokartu gabe...”

SAREAN ARRANTZATUA

Txartel honek hautsak harrotu ditu Bilbon



PPk badaki egoera berrietara moldatzen



Otegiren imitatzailen lehiaketa irabazi ondoren, Arkaitz Rodriguez izango da Sortuko idazkari nagusi berria

Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile bihurtu ostean, Arkaitz Rodriguez proposatu dute Sortuko idazkari nagusi izateko. Ardura berria hartzeko gogoz agertu da Rodriguez Beranduegiri eskusiban egindako adierazpenetan: “Oso gogor entrenatu naiz Lider Handiaren antza izateko eta uste dut ordezkatu dezakedala inork diferentzia nabaritu gabe”, esplikatu du. Bera geratu

da Otegiren imitatzailen I. Txapelketa Nazionaleko lehen postuan, baina aitortu duenez, “egikaritu” hitza noiz eta nola erabili pixka bat hobetu behar du oraindik. Sortuko iturriek esplikatu dutenez, hurrengo hilabeteetan hasiko dira gaitzatzeko ezker abertzaleko kide historikoak ordezkatzeko kastinak eta Clint Eastwood interesatuta agertu da Rufi Etxeberriaren postuarekin.





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa



ARGIA EGUNA

TXIKITIK ERAGITEN

GASTEIZ, URRIAK 7

10:30 OroiTour, memoriaren ibilbidea*

11:00 Gasteiz Euskaldunaren ibilbidea*

12:00 Jolas hezitzaileak

12:30 Argiazaleen topaketa

13:30 Gasteiz Kantuz

14:30 Herri bazkaria, produktu ekologiko eta hurbilekoekin*

Prezioa: 15 euro

(12 euro langabetu, ikasle eta langile prekarioentzat)

16:30 Monologoa: Mirari Martiarena

17:30 Euskal Herriko IV. nortasun agiri
arrotz jaurtiketa txapelketa

19:00 Kontzertua:

Txalainak (Hertzainak-en bertsoiak)

*Etxauri plazan, Gaztetxearen ondoan
(euria egiten badu, Landatxon). Kontzertuak Gaztetxean*

**Ibilaldi gidatueterako eta bazkarirako izena emateko, deitu 943-37 15 45era
edo idatzi komunitatea@argia.eus posta elektronikora.*

Jakoba Errekondoren landareen kontsultategia Bionekaraba azokan (Foru Plaza)